

Año LVII. urtea

140 - 2025

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Karmele Erraztiren
iturriak euskal
emakume-eredua eta
olerkarien genealogia
femeninoa eraikitzeko

Enara San Juan Manso

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LVII. urtea - N.º 140. zk. - 2025

Uztaila-abendua / Julio-diciembre

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Eguraldiaz mintzatzea, kultur jarduera Kepa Diéguez Barahona	229
Exploring lexical diversity in Basque news: original vs. machine-translated texts Amaia Solaun Martínez, Nora Aranberri Monasterio	273
Mendigatzaren gutunetako <ss>: hautu grafikoaren jatorriaz Leyre Rojo Horrillo	317
Hizkuntza-errutinak: euskarazko ahozko oinarrizko komunikazioan trebatzeko ibilbidea Agurtzane Azpeitia Eizagirre, Olatz Bengoetxea Manterola, Idurre Alonso Amezua	349
Genero-alborapena Elia itzultzaile automatikoan, euskaratik gaztelaniarako norabidean Klara Ceberio Berger, Aitziber Elejalde, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Eneko Sagarzazu Martinez, Zuriñe Sanz-Villar, Naroa Zubillaga Gomez	383
Bigarren Hezkuntzan eskola-hizkuntza garatzeko diziplinarteko diseinu bat: kasu-azterketa bat Oihana Leonet, Olatz Lucas, Ane Lamarka	405
Intimitatearen idazketa Miren Agur Meaberen <i>Kristalezko begi bat</i> liburuan Elena Olave Duñabeitia	433
Hizkera-mailaren araberrako ahoskera-aldakortasuna: euskara ikasteko modua aztergai Irati Urreta Elizegi	451
Karmele Erraztiren iturriak euskal emakume-eredua eta olerkarien genealogia femeninoa eraikitzeko Enara San Juan Manso	479

Sumario / Aurkibidea

Euskarazko alfabetatze goiztiarra: dispositibo didaktikoen ezaugarritzea
eta sailkapena

Diego Egizabal Ollokiegi, Agurtzane Azpeitia Eizagirre, Arantza Ozaeta Elorza 505

VARIA

In memoriam. Koldo Artola Kortajarena (1938 – 2025)

Ekaitz Santazilia 543

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales /
Rules for the submission of originals

551

Karmele Erraztiren iturriak euskal emakume-eredua eta olerkarien genealogia femeninoa eraikitzeko

Las fuentes de Karmele Errazti para la construcción de un modelo de mujer vasca y de una genealogía femenina de poetas vascas

Karmele Errazti's sources for the construction of a model of Basque woman and a genealogy of Basque female poets

Enara San Juan Manso

Ikertzaile beregaina

enarasanjuan@gmail.com

<https://orcid.org/0000-0003-3936-9369>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv140.9>

Eskerrak eman nahi dizkiet Amaia Alvarez Uriari eta Iñigo Ruiz Arzalluzi, artikulua honen gaineko iritzi eta iruzkinengatik; aldizkariko ebaluatzaile anonimoen oharrak ere eskertu nahi ditut, artikulua osatzen lagundu baitidate.

Jasotze data: 2025/05/22. Behin-behineko onartze data: 2025/09/28. Behin betiko onartze data: 2025/12/11.



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago.

LABURPENA

XX. mendearen lehen erdiko egunkari eta aldizkari abertzaleetan idatzi zuten emakumeetako bat da Karmele Errazti. Haren iturrien ezagutzan sakondu nahian, «Euzkeldun neskatiillai» (*Euzko-Deya*, 1916 – 1918) eta «Emakume oleskarijak» (*Euzko-Gogoia*, 1950) artikulak arakatu ditut, batik bat, lan honetan. Euskal emakume-ereduaren eraikuntzari dagokionez, ondorioztatu dut jeltzaletasunak zabaldutako irakurgaietatik ez ezik ondoko nazio-estatuetakoko burgesiak sortutako eta hedatutako testuetatik ere edan zuela Erraztik; euskal emakume olerkarien aldarrikapenerako, berriz, Euskal Herrian argitaratutako baina gizon jeltzaileek isilarazitako zenbait testu edo testu-zati baliatu zituen.

Gako hitzak: Karmele Errazti; emakume-eredua; euskal poeten genealogia femeninoa; emakume artikulugileak.

RESUMEN

Karmele Errazti fue una de las mujeres que escribieron en la prensa nacionalista de la primera mitad del siglo XX. A fin de profundizar en el conocimiento de sus fuentes, en este trabajo he explorado, principalmente, los artículos «Euzkeldun neskatiillai» (*Euzko-Deya*, 1916 – 1918) y «Emakume oleskarijak» (*Euzko-Gogoia*, 1950). En cuanto a la construcción del modelo de mujer vasca, he concluido que Errazti se nutrió no sólo de lecturas difundidas por el nacionalismo, sino también de textos creados y difundidos por la burguesía de los Estados-nación contiguos; para la reivindicación de las poetas vascas, por su parte, se valió de textos publicados –pero en cierto modo silenciados– en Euskal Herria.

Palabras clave: Karmele Errazti; modelo de mujer; genealogía femenina de poetas vascas; mujeres articulistas.

ABSTRACT

Karmele Errazti is one of the women who wrote in the nationalist press of the first half of the 20th century. In order to deepen the knowledge of her sources, I have explored, above all, the articles «Euzkeldun neskatiillai» (*Euzko-Deya*, 1916 – 1918) and «Emakume oleskarijak» (*Euzko-Gogoia*, 1950). With regard to the construction of the model of Basque woman, I have concluded that Errazti drew not only from texts disseminated by Basque nationalism, but also from texts produced and disseminated by the bourgeoisie of neighbouring nation-states; for the recognition of Basque female poets, she used some texts or fragments published –but somewhat silenced– in the Basque Country.

Keywords: Karmele Errazti; model of woman; genealogy of Basque female poets; women columnists.

1. SARRERA. 2. ATARIKOAK: KARMELE ERRAZTIREN ARTIKULUGINTZA. 2.1. Emakume abertzaleen artikulugintzaren hastapenak (eta mugak). 2.2. Erraztiren artikulugintzaren bi mugarri. 3. KARMELE ERRAZTIREN ITURRIAK. 3.1. Euskal emakume-eredua eraikitzeke iturriak. 3.2. Euskal olerkarien genealogia femeninoa eraikitzeke iturriak. 4. ONDORIOAK. 5. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Gerra aurreko prentsa abertzalean hitza hartu zuten emakume aitzindarietako bat da Karmele Errazti (Bilbo, 1885 – Paue, 1954); besteak beste, Emakume Abertzale-Batzako (EAB) lehen lehendakaria ere izan zen, eta hizlari aritu zen EABk antolatutako zenbait ekitalditan (Larrañaga, 1978; Perez et al., 2022; Ugalde, 1993). Lan honetan, Erraztiren iturrien gaineko hainbat jakingarri ematea izan dut helburu, batik bat «Euzkeldun neskaitillai» izenburupean argitaratutako testu-sortari (*Euzko-Deya*, 1916 – 1918) eta «Emakume oleskarijak» izeneko artikuluari (*Euzko-Gogoa*, 1950) dagokienez¹.

Hala, sarrera honen osteko atarikoetan, XX. mende hasierako emakume abertzaleek prentsara egindako jauziari buruzko zenbait datu emango ditut lehenbizi, Erraztiren artikulugintzaren nolakotasun batzuk ulertzeko lagungarri izango direnak; horretarako, Ugaldek (1993) emandako datuetan oinarrituko naiz, batez ere. Atarikoen atal horretan bertan, Erraztiren artikulugintzaren barruan «Euzkeldun neskaitillai» eta «Emakume oleskarijak» artikuluek daukaten garrantziaz ere arituko naiz, testu horien iturriak identifikatzeak duen interesaz ohartzeko balioko duelakoan. Hirugarren atalean, aipatutako artikuluko horiek idazteko Erraztik baliatutako iturrien gaineko informazioa aurkeztuko dut, Erraztik berak aipatzen dituen datuen eta neronek identifikatu ahal izan ditudan beste iturri batzuen argitan; horrez gain, *Euzko-Deyan* argitaratutako testu-sortaren

1 Erraztiren testugintzaren azterketan sakondu nahian, hark idatzitako testuen corpus osatua aurkeztu dut beste lan batean (San Juan Manso, 2025), eta orain arte aztertu gabeko zenbait testuri buruzko informazioa eskaini dut bertan.

iturriei buruz esandakoaren osagarri izango delakoan, Erraztik 1922an eta 1931n emandako hitzaldi banaren iturriez ere jardungo naiz atal horren lehen azpiatalaren amaieran. Nik dakidala, orain arte Ugaldek (1993, 87. or.) bakarrik izan ditu hizpide Erraztiren iturrietako batzuk, eta, hortaz, gutxi aztertu den gai batean sakontzeko bidea emango dute hirugarren atalean aurkeztutako datuek. Azkenik, ondorioen atalean, aurretik azaldutakoaren emaitza nagusiak bilduko ditut. Horrekin guztiarekin, euskal emakume jeltzaleari buruzko iruditeriaren eraikuntzan eta euskal emakume olerkarien aldarrikapenean Erraztik baliatutako testuak hobeto ezagutzeko balioko duen informazioa emango dut.

2. ATARIKOAK: KARMELE ERRAZTIREN ARTIKULUGINTZA

2.1. Emakume abertzaleen artikulugintzaren hastapenak (eta mugak)

1906ko abuztuan, aldaketa politiko-kultural eta sozioekonomikoz beteriko garai batean, *Aberri* astekariak emakumeak deitu zituen aberriaren alde lan egitera:

No queremos que la mujer se ocupe de política, pero sí que sea patriota. [...] Y hoy más que nunca necesita Euzkadi de la labor patriota de la mujer vasca, labor, no de tajos y mandobles, sí de educación de almas patriotas, vigorosas, con patriotismo adquirido al calor del regazo materno, entre canciones cuneras y cuentos infantiles. [...] Para ello se precisa que la mujer vasca sea nacionalista, más de corazón que de inteligencia, conociendo los principios esenciales del Nacionalismo sin necesidad de razonamientos de polémica. [...] Dadme una madre patriota. [...] Cuando todas lo sean, en Euzkadi se habrá asegurado, inútil es decirlo, la felicidad de nuestra Patria. [...] Ya las hay, y algunas muy impuestas en Nacionalismo. A éstas acudimos hoy. ¿Por qué no ha de tener ABERRI algunas colaboradoras? (e.g., 1906, abuztuak 11).

Aberrin argitaratutako testu horrek erakusten duen bezala, emakumei ez zitzaien politikan aritzeko deitu, ezpada abertzale izateko eta gizonek onartutako esparruetan –ama eta hezitzaile gisa, batez ere– nazioa eraikitzen laguntzeko. Bestalde, *Aberri*ko deia gorabehera, emakumea etxean mantentzearen aldeko presio sozial handia zegoen XX. mendearen hasieran: 1910eko hamarkadan, oraindik ere, jeltzaletasunaren sektore handi batek ausarkeriatzat jotzen zuen emakumeek prentsan idaztea (Larrañaga, 1978, 1. lib., 34. or.), eta, hori dela eta, emakume gutxik baliatu zituzten orduko egunkari eta agerkariak beren ideiak gizarteratzeko². Egoera hori ez zen nabarmen aldatu 1931ra arte:

2 1907 – 1908 bitartean emakumeek idatzitako ia hogeita hamar artikulua identifikatu zituen Ugaldek (1993, 362. or.): Purificación Gorostiza *Garbiñe* izan zen *Aberriren* deiarri erantzun zion lehena, eta, haren ekimenez, «De colaboración femenina» atala sortu zen astekari horretan, 1906an bertan –geroago baita *Gipuzkoarran* ere–; alabaina, Garbiñe 1909an hil zen eta, hamarkada amaitu baino lehen, emakumeek atal horietara lanak bidaltzeari utzi zioten. 1910ean, baina, BBBren *Bizkaitarra* astekariak «Colaboración femenina» atala sortu zuen, eta, atal horretan ez ezik, hortik kanpo ere argitaratu zituzten zenbait emakumeren testuak 1910eko hamarkadan –Ugalderen (1993, 362. or.) arabera, emakumeek hogeitik gora artikulua idatzi zituzten 1911.-1918. urteak bitartean–. 1920ko hamarkadan, berriz, ia berrogei artikulua argitaratu ziren *Euzkadi* egunkariko «Emakumea eta Aberria» atalean, eta hogeita hamarretik gora hortik kanpo (Ugalde, 1993, 362. or.). Gutxi gorabeherako datu gisa hartu behar ditugu kopuru horiek, litekeena baita emakumeek artikulua horiek baino gehiago idatzi izana.

urte horretako urrian, Espainiako konstituzio berriak sufragio unibertsala onartu zuen eta, hortaz, emakumeen ahotsa inoiz baino beharrezkoagoa izan zen emakumeen artean jeltzaletasuna zabaltzeko. Harrezkero, emakume hizlariak gero eta presentzia handiagoa izan zuten EAJren ekitaldietan, eta nabarmen ugaritu ziren emakumeek prentsan argitaratutako testuak: Ugalderen (1993, 360.-371. or.) arabera, emakumeek idatzitako 200 testutik gora argitaratu ziren 1931.-1933. urteetan –alegia, 1907tik ordura arteko urte guztietan baino gehiago–. Espainian sufragio unibertsala onartu eta ez askora, 1933ko Tolosako Batzar Nazionalan, EAJk afiliatzeko eskubidea aitortu zien emakumeei, gizonezkoen eskubide berdinekin (Goikoetxea, 2022, 119. or.); nolana ere, 1930eko hamarkadan ere emakumeak ez ziren politikagintzaren lehen lerroan kokatu, baizik eta lehen lerroan aritu zirenekin batera (Etxebarria, 2000, 389. or.; Urkiza, 2012, 84. or.).

Duela hamarkada batzuk, 1906.-1936. urteak bitartean emakume abertzaleek prentsan argitaratutako lanak sakon aztertu zituen Ugaldek (1993), eta hauxe izan zen bere azterketatik ateratako ondorio nagusietako bat: emakume abertzale gehienek onartu egin zutela gizonen diskurtsoa, tradizioaren eta erlijioaren izenean; alegia, ama-funtzioa idealizatuz eta familia tradizionala defendatuz, emakumeek ontzat hartu zutela zeregin politikoetan bigarren mailako rola izatea, beren diskurtsoarekin genero-hierarkia ezkutatzaren ari zirela konturatu gabe (573. or.). Ugalderen lanari esker, «ikusi ahal izan zen, ordea, emakumeen parte-hartze politikoak emantzipazio-zantzu interesgarriak ezkutatzaren zituela» (Goikoetxea, 2022, 17. or.); mugimendu jeltzalean parte-hartze handiagoa izatea zeukaten helburu XX. mende hasierako emakume abertzaleek, eta, jarrera «otzana»rekin bada ere, aktiboki borrokatu ziren xede horren alde (Ugalde, 1993, 574. or.), harrotasunez defendatu zuten gizartean nahiz familian zeukaten eginkizuna (Etxebarria, 2000, 390. or.), aldizkari garrantzitsuenetan hartu zuten parte, mobilizazio-moduetan forma garaikideak izan zituzten, eta kultur kanon bat eraiki zuten, besteak beste (Goikoetxea, 2022, 220. or.).

2.2. Erraztiren artikulugintzaren bi mugarri

Erraztiren artikuluek, jakina, kultur kanon hori eraikitzen lagundu zuten. 1910eko hamarkadan prentsa abertzalean idatzi zuten emakume bakanetako bat izan zen Errazti (Ugalde, 1993, 89. or.), eta gerra ostean ez zion artikuluek argitaratzeari utzi (Perez et al., 2022; San Juan Manso, 2025). Emakume abertzale garaikide gehienek bezala, ez zion ortodoxia jeltzaleari kontra egin, eta JEL leloaren inguruan ardaztutako gaiak –erlijioa, aberria eta euskara– izan zituen hizpide, emakumeei zegokien ikuspuntutik³. Horrez gain, emakumea erdigunean jartzeko ahalegin berezia egin zuen: emakume abertzaleen parte-hartze publikorako espazio bat sortzen, Euskal Herrikan kanpoko zenbait emakumeren eredua bertara ekartzen eta emakume guztien arteko ahizpatasun-sareak eraikitzen ahalegindu zen, besteak beste; orobat, EABko lehen

3 Jeltzaletasunak emakumeari gizartean eta familian esleitutako zereginari dagokionez, emakume abertzale gehienak konforme zeudela nabarmentzen du Etxebarriak (2000, 390. or.), eta beren egitekoa duintasunez betetzen saiatu zirela. XX. mendearen lehen erdialdera arteko euskal emakume idazleei buruzko jakingarri asko ematen ditu Alvarez Uriak (2024); XX. mendeko lehen hiru hamarkadetakoiei dagokienez, ikuspegi orokor bat ematen dute Atxagak (1997), Whitek (2000) edota Etxebarriak (2000); mende hasieran idatzi zuten emakumeen artean literaturak eta «idazle» kategoriak zeukaten esanahiari buruz jarduten da Retolaza (2012).

lehendakaria izanik, sarritan idatzi zuen, bai erakundeari buruz, bai EABko *emakumeek* egindako lanari buruz, eta behin baino gehiagotan salatu zuen gizon jeltzaleek emakumeak isilarazteko eta baztertzeke zuten ohiko joera (San Juan Manso, 2025).

Erraztik prentsa abertzalerako idatzitako artikulua guztien artetik, bi mugarri nabarmenduko nituzke. Lehena «Euzkeldun neskatillai» izeneko testu-sorta da, «Etxakin» ezizenarekin sinatu zuena (*Euzko-Deya*, 1916 – 1918⁴). Funtsean, Aranaren ideologia emakume euskaldunen artean zabaltzea zuen helburu artikulua-sorta horrek (Rekalde, 2012, 24. or.), eta, horretarako, eredugarri eta garbi izateko hainbat jokabide-arau eta aholku eman zizkien Erraztik *euzkeldun neskatilei*. Ugalderen (1993, 85.-89. or.) esanetan, familia eta etxea bere buruaren gainetik maite zituen emakumearen irudia zabaldu zuen Erraztik artikulua-sorta horretan, eta sumisiora eta despertsionalizaziora bideratzen zuen metodoa eskaini zien emakume euskaldunei, Erraztiren helburua hori izan ez arren:

A lo largo de sus artículos «Etxakin» fue delineando un arquetipo de mujer para ejemplo de sus lectoras que, tras lo que ella llamaba bondad, amabilidad, humildad y amor a los demás, tenía en realidad una personalidad inhibida, poco culta y no cuidaba sus atractivos sexuales, y cuya única función era la familiar. La otra cara de la moneda, el contramodelo, que también definía, era una mujer descalificada por ser orgullosa, respondona, despegada de la familia, coqueta y despiadada en la utilización de sus conocimientos y sabiduría en contra de los demás. Calificativos con los que rechazaba en realidad un modelo de mujer independiente, culta, con criterio propio, que podía valorar su realización intelectual o sexual, y amenazante por tanto para la permanencia de los roles masculino y femenino tal como estaban establecidos.

Ahora bien, esta automutilación de la personalidad que «Etxakin» pedía a cada una de sus lectoras tenía una compensación que la articulista consideraba suficiente: la consideración social por el cumplimiento de su misión familiar y la obtención del amor de todos (Ugalde, 1993, 87.-88. or.).

Erraztik hogeita hamaika urte zituen *Euzko-Deyako* artikulua-sorta hori idazten hasi zenean, eta, bi urte lehenagotik, Keperin Jemeinekin (Abando, 1887 – Laudio, 1965) ezkondata zegoen⁵. Oligarkiako kide izan gabe, Erraztik batezbestekotik gorako maila sozio-ekonomikoa eta kulturala zeukan: ez zuen goi-mailako ikasketa-agiririk, baina bazuen oso frantses-maila ona, bai eta etxeko lanak egiten zituen soldatapeko emakume bat ere, bere zereginetarako astia izateko aukera ematen ziona (Perez et al., 2022,

4 Erreferentzietan jasota daude Erraztik (1916a-c, 1917a-i, 1918) *Euzko-Deyan* argitaratutako artikulua horiek guztiak. Bai artikulua horien izenburuetan, bai aurrerantzean aipatuko ditudan pasarteetan, argitaratu bezala ematen dut euskarazko testua –baina dagoeneko erabiltzen ez diren zenbait ikur grafiko aldatuta (*ŕ > rr*, *¿? > ?*, etab.) eta erratak zuzenduta–, Erraztiren idazkera ezagutzeko interesgarri izan daitekeelakoan.

5 1914. urtean ezkondu ziren Errazti eta Jemein (Perez et al., 2022, 35. or.). Euskarari nahiz politikari dago-kionez, Aranaren jarraitzaile sutsua izan zen Jemein, eta parte-hartze garrantzitsua izan zuen, bai Bilboko *Euzko-Gaztedian*, bai *EAJn* (Camino & Guezala, 1991; Jiménez de Aberásturi, 1999, 40.-46. or.). Gerraurrean, Aranaren biografia idatzi zuen (Jemein, 1935), eta, erbestean, Sabindiar-Batzako bultzatzaileetako bat eta *EAJren Alderdin* artikulua gehien argitaratu zituen egilea izan zen, besteak beste (Barandiaran, 2024).

37. or.; Ugalde, 1993, 136. eta 312. or.). *Euzko-Deyako* artikulua idazten hasi zenez, emakumeen hezkuntzari buruzko hainbat testu irakurriak zituen Erraztik, eta euskarara ekarri nahi izan zuen erdaraz irakurritakoaren parte bat: «Ondo menduba ixateko, edozein neskatillak jakin biarr daunatzaz, asko ta asko idatzi (*eskribidu*) da errdera gustijetan. Euzkeraz, baña, gitxi edo bapez, neuk dakidala beintzat» (Errazti, 1916a). Etxekoandre eta etxekoandregai euskaldunentzako jokabide-eredu bat euskaraz eskaintzea helburu zuen lehen testu-sortetako bat osatzeagatik balioetsi behar ditugu, beraz, Erraztiren artikulua horiek⁶.

Erraztiren artikulugintzaren barruan nabarmenduko nukeen bigarren mugarrira «Emakume oleskarijak» artikulua da (Errazti, 1950). Helduaroko fruitua da testu hori, Paueko erbestealdian idatzitakoa, Erraztik hirurogeita bost urte zituela. Ordurako, egunkari eta aldizkarietan argitaratutako «300 olerki baño geyago» omen zeuzkan bilduta Erraztiren senarrak (Jemein, 1950b, 1. or.), eta, Zaitetik *Euzko-Gogo*a abiatu zuenean, bere antologia horretako lau olerki hauek bidali zizkion Jemeinek arrasatearrari, «Euskal-Olerki Bikañenak» atalerako: Arana Goiriren *Gabonaren* pasarte bat (*Mirenen abestija*), Koldo Eleizalderen *Izkillu-Deya*, Imanol Arriandiagaren *Mois'en abestija* eta Zaitegiren beraren *Tori nere edontzia*. Jemeinek (1950b) bidalitako testuak *Euzko-Gogoaren* maiatz-ekaineko alean argitaratu zituen Zaitetik –«Euzkel-Pizkundia'ren olerkirik onenak» izenburupean–, eta, aurrerantzean, Erraztiren senarraren esku utzi zuen «Euskal-Olerki Bikañenak» atala⁷.

1950eko maiatz-ekaineko alean bertan argitaratutako beste artikulua batean, Pizkundeko olerkarien ekarpena zertan zetzan azaldu nahi izan zuen Jemeinek (1950a): haren esanetan, aurreko bertsolariak –Arzak edota Bilintx, kasurako– «erdeltzale-tu-samar egozan» eta askotan jotzen zuten erdal hitzetara beren bertsoetan; gainera, haien bertsoak «goguan eta gayetan makalak ixaten ziran geyenetan», eta «geyenetan etziran sakonak, aulak baño». Pizkundeko olerkariak, berriz, «euzkel-olerki polit-ederrak» egin zituzten, «euzkera garbiz ta sakon-sakonkiro». Olerkari eredugarrien talde horretan sartzen zituen Jemeinek «Arana-Goiri, Eleizalde, Buztintza, Enbeita anayak, Arriandiaga Aba, Erreterria Aba, Bera Aba, Zaitegi Aba, Zabala-Arana Aba, Arrese-Beitia, Ormaetxea, Monzon, Lizardi, Urkiaga ta beste asko».

Onaindiaren (1990, 181. or.) arabera, senarrak *Euzko-Gogo*ara bidalitako lehen artikuluari erantzuteko idatzi zuen Erraztik emakume olerkariari buruzko testua: «Keperin, bere senarrak, [...] “Euzko-Gogo” aldizkarira bialdu eban bein artikulua bat, “Euzkel-Pizkundiaren olerkaririk onenak” eritxona. Karmele'k, itxura danez, ez eban gogoz irakurri, emakumezkoenik bertan artzen ez ebalako. Eta berak be aldizkari orretara bialdu eban lan guri bat». Neurri handi batean, bada, Pizkundeko bi

6 1911 – 1912 artean, «Lo poco importa muchísimo» izeneko sei artikuluko sorta idatzia zuen Jule Gabilondo Maitek Bizkaitarra aldizkarian, baina gaztelaniaz idatzita zeuden eta, emakumei ez ezik, gizonei ere zuzenduta zeuden (Ugalde, 1993, 83. or.).

7 Urte horretako irail-urriko alean, Jemeinek (1950c) bidalitako beste hiru olerki argitaratu ziren: Arana Goiriren *Gabonaren* beste pasarte bat (*Artzañen abestija*), Kirikiñoren *Aitonaren esana* eta Kepa Enbeitaren *Jantzi daigun Euzkerea*. Handik aurrera, ordea, ez zen berririo argitaratu atal hori.

emakume olerkariren –Sorne Unzueta *Utarsusen* eta Pantzeske Astibia *Onintzeren*– olerki bana ezagutzera ematea zuen helburu Erraztiren artikuluak; nolana ere, lehenagoko emakume olerkariak –Erdi Aroko eresigileak– ere hizpide dituen heinean, euskal olerkariaren genealogia femenino moduko bat egiteko nolabaiteko saiakera ere bada Erraztiren testua, eta horregatik, hain zuzen, hartu behar dugu mugarritzat⁸.

3. KARMELE ERRAZTIREN ITURRIAK

Jarraian, saiatuko naiz argitzen zer testu izan zituen Erraztik mahai gainean –edo, behintzat, gogoan– mugarritzat jo ditudan artikulu horiek idaztean. Euskal emakume-ereduari dagokionez, «Euzkeldun-neskatillai» artikulu-sortaz arituko naiz lehenik, eta Erraztiren bi hitzaldiren iturriei buruzko zenbait jakingarri ere emango ditut ondoren.

3.1. Euskal emakume-eredua eraikitzeako iturriak

3.1.1. «Euzkeldun-neskatillai» artikulu-sorta (Euzko-Deya, 1916 – 1918)

Euzko-Deyan argiratutako artikulu-sortan, JEL leloaren oinarriekin bat zetorren emakume-eredua zabaldu nahi izan zuen Erraztik. Funtsean, beraz, euskal emakumearen arketipo tradizionalaren mugak gainditzeko askatasunik gabeko emakumea irudikatu zuen: gizonaren eta Elizaren arau moralen mendekoa, euskal ohitura eta balioen transmititzailea, etxekoia, langilea eta zuhurra, besteak beste. Ezin zitekeen besterik espero, kontuan hartzen badugu Erraztiren artikuluak *Euzko-Deyako* zuzendaritzako gizonen baimendutako testuak zirela⁹.

Badakigu, ordea, garai hartan gizon jeltzale askok ausarkeriatzat jotzen zutela emakumeek prentsan idaztea, eta, hori horrela izanik ere, tradizioz emakumeak ez zegokion zeregin horretan aritzeko adorea izan zuen Erraztik, emakume *euzkeldunaren* gaineko iruditeria sortzeko eta zabaltzeko xedarekin. Oso aintzat hartzekoa da, hortaz, Erraztik *Euzko-Deyako* artikulugile gisa egindako lana; izan ere, Erraztik konpromiso handia erakutsi zuen euskal nazio-identitatearen eraikuntzan eta defentsan, eta, jeltzaletasuna sendotzeko eta hedatzeko ez ezik, euskal emakumeek etxean eta gizartean egindako lanaren balioa aitortzeko ere garrantzitsuak izan ziren Erraztiren testuak, beste gauza askoren artean¹⁰.

Euzko-Deyan argitaratutako artikuluak idazteko, hainbat lanetatik edan zuen Erraztik: bai jeltzaletasunaren barruan sortutakoetatik, bai esparru horretatik kanpo

8 Emakume olerkari eta ez-olerkariaren genealogia osatuago bat eskaini digu berriki Alvarez Uriak (2024). Historiografia femeninoan, mugarritzat hartzen da Bordaren (1984) lana; haren gainean, honela mintzo da, esaterako, Retolaza (2024, 300. or.): «Antologia-eran heldu zitzaion lehen aldiz Euskal Literaturaren historiografia femeninoaren arrastoetan arakatzeari, Itxaro Bordak egin ere».

9 Sorta horretako bigarren artikuluan, adibidez, zera idatzi zuen Erraztik (1916b): «“Euzko-Deya” zuzentzen daben mutillak laketu (*permitidu*) dauskube-ta, ekin dayogun geure arluari».

10 Erraztiren artikuluen irakurketa apur bat sakonagoa egiten dut beste lan honetan: San Juan Manso (2025).

idatzitakoetatik. Ugaldere (1993, 86. or.) esanetan, Eliza Katolikoak gomendatutako «Obras de Misericordia» direlakoak –kasurako, Asteteren *Catecismo de la doctrina cristiana* (1911)– ekartzen dituzte gogora Erraztiren aholkuek; haatik, Erraztik beste-lako iturriak aitortu zituen bere testuetan.

Jakina da frantsesez oso ondo zekiela Erraztik, bai eta Parisen eta Lourdesen egona zela ere (San Juan Manso, 2025), eta, beraz, ez da harritzekoa haren idazmahaian Frantzia argitaratutako testuak ere egotea. Bertakoa da, hain zuzen, Erraztik izenez aipatzen duen lehen idazlea: «Mr. Dupanloup». Honela dio, zehazki, Erraztik (1917f): «Sendi gustijetan, baña txiruetan batez-be, etxekandera ona gustiz biarrezkua da –Mr. Dupanloup diñon lez– gixona baño geyago». Teologoa eta pedagogoa izan zen, besteak beste, Félix Dupanloup (1802 – 1878), eta hezkuntzari buruzko hainbat liburu idatzi zituen; tartean, *La femme studieuse* (1869). Emakumeek Elizaren arauen arabera ikasi behar dutela erakustea du helburu lan horrek, eta baliteke Dupanloup (1900, 206. or.) liburu horretako esaldi honi egitea erreferentzia Erraztiren aipua: «Pour la femme moins favorisée [...] le travail est encore plus nécessaire».

1917ko urtarrileko artikulua baino lehenagoko beste batean, Erraztik (1916b) esana zuen emakumeak ikasi beharra zuela, betiere «emazte- ala ama-biarrkunak laga» gabe eta «arropuztu» gabe; ideia horren alde egin ostean, bestalde, latinez zekien emakume baten adibide hau aipatzen zuen: «Emakume gaste bat ezautu dot, bere gauza gustijetan maitagarija. Bein, bere semiari ikastolean emondako ikaskixuna zuzentzen inardubala, senarrak ikusi ta ikaratuta itaundu eutson: Baña euk lateraz ete-dakin? –Bai, ene maitia, –erantzun eutson emazte zoruntsubak». Bada, Dupanloup *La femme studieuse* liburuan ere baztertu egiten da emakume jakintsuen harropuzkeria, besteak beste Molièreren *Femmes savantes* direlakoan pedanteria aipatuta (Dupanloup, 1900, 126.-127. or., 160.-162. or.). Halaber, emakumeek latina ikastea oso baliagarria dela baieztatzen du Dupanloup (1900, 53. or.), semeei irakasteko besterik ez bada ere; alegia, Erraztiren testuan aipatutako emakumeari latina jakitea erabilgarri zitaion zeregin bertsurako: «L'ai dit déjà combien il est utile que les femmes sachent quelque chose du latin, ne fût-ce que pour être en état d'enseigner les éléments de cette langue à leurs fils, et de leur donner, là, comme ailleurs, les premières leçons».

«Neskatil-eredubak» izeneko artikuluan, oster, «idazle ospetsu batengandik» hartutako neska etxekoiaren eredu hau aipatzen du Erraztik (1917g): «Ontzi baten loriak atonduten ikusten ba-dozube, aulkiyak eta erredixak (*etxe-trastiak*), ondo ta egoki bere lekuban ipinten, neska ori etxekoya da, ezta jairik-jai ibiliko, etxe-jabia ixango da. Eredu au idazle ospetsu batengandik artu dot eta orain edestu edo kontako dautzuben neuk beñola ikusi nebana». Erraztiren antzera, Dupanloup (1900, 228. or.) ere honela deskribatzen du emakume ikasien etxea: «La forme des meubles est jolie, leur arrangement gracieux [...] Des fleurs [...]». Dupanloup ote, hortaz, Erraztik aipatutako «idazle ospetsu» hori?

«Euzkeldun-neskatillai» testu-sortako hurrengo artikuluan, «Mme D'Alq. pantzetar emakume ta idazle ospetsubak» idatzitako pasarte bat ekarri zuen euskarara Erraztik (1917a); kanpokoez baino lehenago, etxekoez arduratzeko aholkatzen zuen bertan, eta, euskaratutako pasarte oinarri hartuta, gomendio hau ematen zien *euzkeldun*

neskatilei: etxetik kanpo, lehenik «euzkotarrak» maitatzeko, eta, horien artean, «euzkeldunak eta aberrtzaliak»¹¹. Erraztik aipatutako Louise d'Alq. –Marie-Louise Alquié de Rieuepeyroux (1840 – 1910)– kazetari eta editore frantsesak hogeitik gora liburu argitaratu zituen XIX. mendearen amaieran. Horietako asko *savoir-vivre* delakoari buruzko esku-liburuak dira; alegia, bizitzako edozein zereginetan dotoreziaz jarduteko arteari buruzko lanak. *La science de la vie, Conseils et réflexions à l'usage de tous, Le savoir vivre en toutes les circonstances de la vie, La science du monde, Le nouveau savoir-vivre universel, La femme chez elle et dans le monde, Usages et coutumes de toutes les professions, Les secrets du cabinet de toilette: conseils et recettes, Notes d'une mère: cours d'éducation maternelle, La philosophie d'une femme, Feuilles éparses, Le maître et la maîtresse de la maison, Les maladies et les remèdes, Consuelo (Mme Nina de Villars)* edota *Anthologie féminine* dira Alqek idatzitako lanetako batzuk. Oro har, Frantziako burgesiari emakumeen jokabideak nolakoa izan behar zuen azaltzeko ondu zituen liburu horiek, baina hezkuntzari buruzko liburuak eta eleberriak edota kontakizun laburrak ere badira tartean. XX. mendearen hasierako urteetan, hainbatetan berrargitaratu zituzten Alqen liburuak, baina ez dut lortu jakitea nondik atera zuen Erraztik *Euzko-Deyan* itzulitako pasartea. Madame d'Alq *Les causeries familiales: recueil à l'usage des jeunes filles et des mères de famille* eta *Paris charmant: journal illustré des modes nouvelles* kazetako zuzendaria eta jabea ere izan zen, eta haren testu asko argitaratu ziren Frantziako prentsan; gaztelaniara ere itzuli ziren haren testuetako batzuk, eta, horrenbestez, ezin dugu baztertu Erraztik agerkari edota itzulpenen batetik atera izana *Euzko-Deyan* euskaratutako pasartea¹².

Dupanloupek bezalatsu, Alqek ere Molièreren *Femmes savantes* direlakoak aipatzen ditu bere testuetako batean; *La science de la vie* liburuan, preseski. Alqen esanetan, baina, Molièrerek irudikatutako emakume horiek XIX. mendeko emakume pedanteak baino askoz hobeak ziren, «emakume baitziren oraindik ere»: «La pédante du XIX^e siècle ne ressemble pas aux femmes savantes de Molière, quoiqu'elle soit bien leur parente. Celles-ci conservaient encore de la mièvrerie, de la coquetterie; elles restaient femmes» (Alq, d.g., 44.-45. or.). Liburu berean, Alqek Fénelon sartzen du «munduko jendearen» liburutegian egon beharreko oinarrizko idazleen artean¹³, eta, hain zuzen, «Neskatil on-onaren ereduba» izeneko artikuluan, François de Salignac de la Mothe Fénelon (1651 – 1715) teologo frantsesaren –«Cambrai'ko gongotzale (*arzobispo*) samurr ta on»aren– *Les*

11 Euskal arraza gordetzeko, jeltzaletasunak ezinbestekotzat jotzen zuen «ezkontza misto» direlakoak ekiditea, eta, gerra aurreko prentsan argitaratutako testuetan, hainbatetan azaldu zen Aranarengandik jasotako ideia horren gaineko kezka (Ugalde, 1993, 34., 44.-50. eta 99. or.).

12 1879.-1880. urteetan, adibidez, gaztelaniara itzulitako Alqen zenbait pasarte argitaratu ziren *El Semanario Murcianon*, eta, Méndezen (2010, 176.-177. or.) esanetan, Frantziako prentsan argitaratutako testuetatik –eta ez Alqen liburuetatik– ateratakoak ziren pasarte horiek guztiak; Alqen testuek zabalkunde handia izan zutela erakusten dute lekukotasun horiek, Erraztirea baino lehenagokoak izan arren. Bestalde, XIX. mendeko 80ko hamarkadan, Alqen liburu bat –ezin izan dudana eskuratu– argitaratu zuten gaztelaniaz: Aranda y Sanjuánek itzulitako *La sociedad y la familia* (Alq, 1881). Gutxi gorabehera 1881.-1887. urteak bitartean, *Paris charmant: periódico de modas ilustradas* hilabetekariaren Espainiako edizioa ere argitaratu zuten.

13 «Les fondements d'une bibliothèque de gens du monde doivent être appuyés sur les auteurs classiques. Les œuvres de Molière, de Corneille, de Boileau, de Racine; [...] les plus impies auront Bossuet, Fénelon, Bourdaloue, Massillon, ces grands modèles d'éloquence [...]. Ah! Ce sera une tablette d'or que celle qui supportera ces chefs-d'œuvre, et ceux qui, dans une heure de désœuvrement et de dégoût, y laisseront traîner les yeux se retireront fortifiés, améliorés et y auront trouvé un trésor» (Alq, d.g., 71.-72. or.).

aventures de Télémaque (1699) lan klasikoaren XVII. liburuko pasarte bat itzultzen du Erraztik (1917h)¹⁴. Ulisesen seme Telemako da abentura-liburu horretako protagonista, eta, Erraztik itzultitako pasartean, Antiope «neskatil on-onaren eredu jarraigarrija» –neskatila isil, langile eta apalaren eredua– deskribatzen da. Artikulu berean, Fénelonen pasartearen ondoren, Salomonek «egindako emakume on-onaren ereduba» ere ekartzen du euskarara Erraztik; Bibliako (EsZ 31.10-29) pasarte baten itzulpena da bigarren testu hori, eta senarrari, seme-alabei eta etxeari osoki emana dagoen emazteari buruz dihardu.

Neskentzako barnetegi bateko zuzendari izan zen Fénelon, bai eta Luis XIV.aren bilobaren irakasle ere, eta, hori dela eta, zenbait hezkuntza-eskuliburu eta irakurgai-bilduma hezigarri atondu zituen, beste eite bateko testuak ere idazteaz aparte. Erraztik itzultitako bi pasarteak –Telemakoren liburukoa eta Bibliakoa– elkarren ondoan ageri dira Fénelonen *De l'éducation des filles* lanaren edizio iruzkindu batean (Fénelon, 1909, 135.-138. or.). Lan horretan, umeen hezkuntzan Bibliako istorioek duten baliagarritasunaz aritzen da –besteak beste– Fénelon, eta umeei kontatzeko moduko zenbait testu zerrendatzen ditu; aipatutako edizio modernoaren 135.-136. orrialdeetan, Salomonen pasarte dago jasota, eta, Fénelonen lanaren pasarte horri egindako oin-ohar batean, *Les aventures de Télémaque* liburuko pasarte txertatzen du Charles Defodon editoreak¹⁵. Nahiko ziurra dirudi, beraz, *De l'éducation des filles* lanaren edizio iruzkindu horretatik hartu zituela Erraztik emakume eredugarriei buruzko bi pasarte horiek.

Frantziako egileak –Dupanloup, Alq, Fénelon– izenez aipatzeko arazorik ez badu ere, Espainiako pedagogo baten izena ezkutatu egiten du Erraztik (1917e) «Etxe-ardurea» izeneko artikuluan. Honela amaitzen du Erraztik artikulua hori: «Iñok esan dau ondo baño obeto: dagona baño geyago eralgitia, zoruaren egiñena da; dagon gustiya eralgitia, zentsunbakuarena, ta dagona baño gitxiago eralgitia zurr'arena». Zalantzarik gabe, Ezequiel Solana pedagogo espainolaren (1863 – 1931), *Vida y fortuna o arte de bien vivir* (1915) lanetik itzuli zituen Erraztik hitz horiek. Solanaren liburuen barruko azalean, *Páginas dedicadas a los obreros, y muy especialmente a los alumnos de las escuelas primarias y de adultos* azpiizenburua ageri da, eta, funtsean, bizitzari eta lanari buruzko eskuliburu bat da Solanaren testua, moral kristauaren eta pedagogia sozialaren hainbat topiko biltzen dituen. Solanaren (1915, 74. or.) liburuko «La economía es el complemento del trabajo» ataleko hitz hauek daude Erraztiren hitzen oinarrian: «Gastar más de lo que se gana es propio de un loco; gastar todo lo que se gana es de un hombre poco previsor; gastar menos de lo que se gana es de varones prudentes». Alabaina, hitz horiek ez ezik, paragrafo oso hau ere hartu zuen Erraztik Solanaren lanetik:

14 Fénelonen baimenik gabe –alegia, berak ezer jakin gabe– argitaratu zen lehen aldiz liburua, eta, besteak beste lanean salatzen diren agintari handinahien eraginez, ondorioak jasan behar izan zituen egileak (Fénelon, 1997, XXVII. or.). Duvoisinek itzuli zituen euskarara Fénelonen lan horren lehen hamabi liburuk (Fénelon, 1997).

15 «Rapprochons de ce portrait de la femme forte de l'Écriture celui que Fénelon a tracé lui-même, dans les *Aventures de Télémaque*, d'Antiope, fille d'Idoménée. Il sera facile d'y retrouver, sous le voile d'une fiction antique, l'idéal de la jeune fille, telle que Fénelon la comprenait, douée de qualités et de vertus qui sont, en réalité, toutes chrétiennes, telle qu'il cherche à l'élever et à la former dans son traité d'éducation. «Antiope est douce, simple et sage [...] et, si elle ouvre la bouche, la douce persuasion et les grâces naïves coulent de ses lèvres [...]» (Fénelon, 1909, 136.-137. or.).

Errazti

Gixasemiak eztira txiro edo *pobriak* ezer eztaukelako, lanik egiten eztabelako baño. Larregi eralgiten dozubelako, zuben zizkuban utsuniak egiten ba-dozubez, zorrak egin biarrko dozubez. Ai, orduban, zuben zorigatxa! Zorrak bixitxa ilundu, poza mingoztu ta etxiak ondatuten dabez. Zorra etxian, soñekuan urradurea lakoxia da: berialaxe adabatuten ezpa-da, andijagotu egiten da (Errazti, 1917e, 6. or.).

Solana

En materia de pobreza conviene saber que no es verdaderamente pobre el que no tiene nada, sino el que no puede trabajar para adquirir lo que necesita. [...] Por último, no gastéis nunca tan desconsideradamente que lleguéis a contraer deudas. Nada entristece tanto la vida, nada arruina tan insensiblemente las casas, como el vivir de prestado. Una deuda en el hogar es como un desgarrón en el vestido: se va agrandando más si no se recose pronto (Solana, 1915, 74. or.).

Baliteke «Sendi-jayak» artikulurako ere Solanaren testutik edan izana. Zera esaten du Erraztik (1916c) bertan:

Íñok esan dau ta zuzen dago sarri askotan zorijon geyago ixaten da txiro edo pobrien txabolaetan, aberatsen jauregi ederrenetan baño. Zorijona! Orra orr edonoren esku-betan ixan leiteken ogasuna; aurrian daukagu sarri ta ezestuten dogu. Poza ta atsegiña sendi-barruban sorrtu-erazotia gustijok al-dogu ta poza ta atsegin orrek dira zorijona egiten dabenak. Orretariko poz-atsegiñen iturri ugarija da sendi-maitasuna. Eta sendi-maitasuna iraun erazoteko gauzarik onenetarikuak dira ekandu onak.

Eta antzeko ideiak irakur ditzakegu Solanaren (1915, 20.-23. or.) liburuan:

Y es que la felicidad no está en la riqueza, donde todos la buscamos; ni en el poder y los honores, donde muchos pretendemos encontrarla. Si ahí estuviera, no podrían disfrutarla los pobres ni los humildes, y nuestro divino Creador ha querido poner la felicidad igualmente al alcance de todos los hombres. Tan feliz como un rey en su trono, puede serlo un pastor en su cabaña y un mártir en el suplicio. Porque la felicidad no es una cosa exterior, que debamos perseguir y acosar por el mundo para llegar a poseerla, sino que es una tranquilidad interior, una paz de espíritu, una satisfacción de conciencia, que radica dentro de nuestra misma alma. Es feliz quien sinceramente cree serlo. [...]

La felicidad no está en la grandeza de las cosas, en el vivir opulento, en el comer opíparo, sino en lo más modesto, en lo más humilde, en la verdad, en la belleza, en la sencillez, en el cariño. Un noble impulso, una palabra afable, una acción magnánima, nos hacen acaso más felices que el oro, los honores y los placeres mundanos. [...]

Cuestionario.– [...] ¿Quién será más feliz, el rico egoísta que esconde sus tesoros, o el pobre generoso que gasta útilmente lo que gana con su trabajo?

Dena den, Solanaren testua ez dator guztiz bat Erraztirenarekin, eta, horrenbestez, etorkizuneko lanek argitu beharko dute Erraztik mahai gainean Solanaren liburua eduki zuen ala ez «Sendi-jayak» artikulua idaztean.

Frantziako eta Espainiako testuetara ez ezik, abertzaleek idatzitako lanetara ere jo zuen Erraztik euskal emakume-eredua eraikitzeko. «Sendi zoruntsubak» izeneko artikuluan, Koldo Eleizalderen *Landibar: cuadros novelescos del País Vasco* (1918) liburua¹⁶ aipatu zuen: «nik uste-dot EUZKO-DEYA eztabela gixonak bakarrik irakurri biarr, ta neskaitillan arrtian be zabaldu biarr-dala, euzkotu ta euzkeltzaletu datezanantzat. Olan etxake jazoko “Landibarr”en irakurri doguzan gauza negarrgarrijak» (Errazti, 1918). Eleizalderen lanean, euskaldunak eta euskaldunen etsaiak kontrajartzen dira: Miguel Gaztanbide ingeniari abertzale zintzoa da eleberriko heroia, eta, euskaldunen etsaietako bat Juli Erdoiztaberea da, Ramon Goigaztelu agure euskaldunaren erraina. Juli euskaldun endekatua da eta ez dauka euskal emakume baserritar zintzoen antzik; ezin du baserriko giroa jasan, eta Madriler a ihes egiten du langile etorkin batekin (Granja, 2000b, 221. or.). Ziurrenik Juliren eredu arbuigarria buruan, hiri handietan neska gazteentzako arrisku ugari dagoela aipatzen du Erraztik (1918), eta garbizaleak eta zintzoak izateko gomendatzen die euskal neskatilei. Horrez gain, euskaltzaleekin batzeko aholkatzen die, dagoeneko aipatu dugun 1917ko otsaileko artikuluan egina zuen bezalatsu (Errazti, 1917a): «euzkeltzaliakin batu, ez orrtik dabilzan belarrimotz itxusi orrekin»; hala eginez gero, Jainkoak zainduko dituela agintzen die Erraztik, eta, familia egitera helduz gero, zoriontsuak izango direla.

Horrenbestez, Dupanloup, Alq, Fénelon, Solana eta Eleizalderen testuak izan zituen, batik bat, mahai gainean Erraztik «Euzkeldun-neskaitillai» artiku-sorta idazteko orduan, eta, alde horretatik, esan genezake Europako burgesia katolikoak eta jeltzaletasunak zabalduetako zenbait irakurgairen baturaren emaitza dela, nola-bait, *Euzko-Deyan* argitaratutako artiku-sorta hori. Julene Azpeitiaren lanaren azterketaren ondorioen berri eman aurretik, hipotesi hau botatzen du Fernándezek (2012, 279.-280. or.):

Nuestra hipótesis es que el nacionalismo vasco hizo suyos los mecanismos ideológicos del Estado-nación surgidos desde las clases burguesas europeas, pero en un contexto en que esta aspiración soberanista choca con las estructuras legales y administrativas de los Estados que funcionan como antagónicos. Dicho de otra manera, la ideología del nacionalismo vasco es coincidente con la ideología burguesa europea; la diferencia estriba en que dicha ideología la desarrolle una nación sin Estado (País Vasco) o un Estado-nación (España y Francia). En concreto, la acción que las mujeres nacionalistas desarrollan durante el primer tercio del siglo, hasta la guerra civil española (1936 – 1939), conectan perfectamente con la perspectiva burguesa de género y adquieren en este contexto ideológico su sentido más pleno.

Eta, bere hipotesia baieztatzean, hauxe gaineratzen du Fernándezek berak (2012, 297. or.): «De esta manera los discursos y las prácticas sociales y educativas se fueron conjugando en una constante dinámica de contradicción en la que la ideología dominante era prácticamente común, pero su traslación a la realidad contextual se ve readecuada

16 Eleizalderen eleberriaren bi kapitulu argitaratu ziren *Euzkadi* egunkarian (1917-10-07, 1918-05-30), Granjak (2000a, 179. or.) gogoratzen duen bezala.

y matizada». Bada, ikusi dugun bezala, Erraztiren iturrien azterketaren emaitzak bat datoz, oro har, Fernándezek –Julene Azpeitiaren testuen harira– egindako analisiarekin, nahiz eta, Erraztiren kasuan, jakina, tesi orokor hori ez den Azpeitiaren kasuan bezala gauzatzen, Erraztik ez baitzuen edan Azpeitiaren iturri berberetatik. Edozein kasutan, beste emakume abertzale batzuen moduan, Erraztik ere Europako burgesiak sortutako testuak irakurri zituen, eta, jeltzaletasunaren printzipioei jarraikiz, emakume euskaldunentzat egokitu zituen erdal testuetan irakurritako zenbait ideia. Erraztik, nolanahi ere, ez zituen bere artikulua euskal burgesiako neskatilentzat idatzi –ez behintzat horientzat bakarrik–, emakume xumeagoei zuzendu baitzitzaien oro har¹⁷.

3.1.2. EABko lehendakari gisa emandako bi hitzaldi (1922, 1931)

«Euzkeldun-neskatillai» artikulua-sortaren iturrien azterketatik ondorioztatutako tesi orokorra baieztatzeko eta, orobat, zehazteko balio du EABko lehendakari gisa Erraztik emandako bi hitzaldiren iturrien azterketak.

1922ko azaroaren 25ean, Aranaren heriotzaren hemeretzigarren urteurrena ospatzeko ekitaldi literario-musikala antolatu zuen Euzko-Gaztediak, Bilboko Sociedad Filarmónicaren egoitzan. *Aberrik* ekitaldi osoaren kronika argitaratu zuen (e.g., 1922, azaroak 30), Erraztik bertan emandako hitzaldia barne. Kronikaren arabera, Aranak «duindutako» emakume abertzaleari buruz aritu zen Errazti bere diskurtsoan, 1902ko *Libe* antzezlanaren oinarri hartuta. Aranaren lan horretan, aberriaren ama sinboliko, garaipenaren bitartekari eta gizonen akuilu gisa azaltzen da Libe, eta, hori dela eta, abertzaletasunari dagokionez emakumeek izan beharreko jarrerari buruzko manifestutzat hartu izan da antzezlan hori (Ugalde, 1993, 47.-50. or.). Gaztelako zaldun batekin maitemintzen den jauntxo baten alaba da Libe; hasieran, sentimendu pertsonalak jartzen ditu aberriaren interesen gainetik, baina, gaztelarrek bizkaitarrak erasotzean, bere jokabideaz damutzen da eta, gudu-zelaian Ama Birjinari otoi eginda eta bandera hartuta, bizkaitarrak adoretzen ditu. Amaieran, heriotzarekin ordaintzen du hasieran egindako hutsegitea Libek, baina haren jarrera-aldaketak garaipena ematen die bizkaitarrei. *Aberri*n argitaratutako kronikaren arabera, Erraztik Liberen edertasuna, soiltasuna, gozotasuna eta heroismoa goraipatu zituen bere hitzaldian, eta alde batera utzi zituen Libek antzezlanaren hasieran erakusten duen jokabide burugabea (Ugalde, 1993, 156. or.).

Bere mintzaldian, Liberen ereduaren kontrako bi adibide aipatu zituen Erraztik: Varona (edo Barona) delakoa –Maria Perez Villanañekoa– eta Erauso. Becerro de Bengoa kronista gasteiztarrak jaso zuen Varonari buruzko Erdi Aroko erromantze arabarra (Becerro, 1885, 100.-104. or.), eta, kronikaren arabera Erraztik bere hitzaldian «Erdi Aroko istorioak» aipatzen dituenetz gero¹⁸, litekeena da Erraztik noizbait –bere

17 Familia txiroetako etxekoandreez ziharduena, adibidez, «Etxekandera onaren ereduba» izeneko artikuluan (Errazti, 1917f), edota «uri andijetara otseñak ixaten juaten diran euzkeldun neskatillak» aipatzen zituen «Sendi zoruntsubak» izenekoan (Errazti, 1918). Alde horretatik, Erraztiren testuak ez zetozen guztiz bat, adibidez, Kataluniako burgesiako «donei» zuzendutako *Feminal* aldizkariarekin (Ugalde, 1993, 65. or.).

18 «[...] aquella arabarra llamada Barona, de quien nos hablan las historias de la edad media» (e.g., 1922, azaroak 30).

diskurtsoa idatzi aurretik bada ere– Becerroren liburua eskuartean eduki izana. Erausori dagokionez, Espainiako kritikari eta poeten hitzak aipatu zituen Erraztik¹⁹, eta, horrenbestez, pentsatzekoa da bazuela 1829az geroztik *Historia de la monja alférez, Doña Catalina de Erauso, escrita por ella misma* izenburupean argitaratutako liburua-ren berri, bai eta Erausori buruzko beste lanen batena ere²⁰.

Bederatzi urte geroago, 1931ko urriaren 15ean, hitzaldi-zikloa antolatu zuen EABk, eta ziklo horren hasiera-ektaldian ere eman zuen diskurtsoa Erraztik; bere mintzaldian, gai hauek izan zituen hizpide (Larrañaga, 1978, 2. lib., 47. or.): «E. A. Batza». Su origen y fundamento. ¿Qué es la mujer? Lo que las mujeres dicen de los hombres²¹. Lo que dicen los hombres. La mujer en la Historia (Antiguo Testamento, Era Cristiana, Vida moderna). La cultura de la mujer. Nuestros días. La mujer vasca. Consideraciones». Emakumea zer zen azaltzeko, beste herrialde batzuetan emakumeari buruz zuten iritzia buruz hitz egin zuen Erraztik, *Euzkadik* argitaratutako kronikaren arabera (e.g., 1931, urriak 16): «Se ocupa después de lo que es la mujer y presenta interesantes observaciones del concepto que de ella se tiene en África, India, Turquía, Moscú, Inglaterra, Polonia y Francia. En España, dice, la mujer es una especie de enemigo peligroso que no está mal encerrar de vez en cuando». Horretarako, M. Bescherelle eta L.-J. Larcherren *La femme jugée par les grands écrivains des deux sexes* liburuan jasota dauden Madame Lambert *salonnière*aren (1647 – 1733) hitz hauetan oinarritu zen, ziurrenik, Errazti²²:

LA FEMME est l'être du monde le plus indéfinissable. Parcourez toutes les nations qui habitent le globe, vous n'en trouverez pas deux qui en aient les mêmes idées. En Afrique, la FEMME est une esclave faite pour ramper sous un maître. Dans les Indes, c'est une machine assez drôle, uniquement animée pour les plaisirs d'un magot. En Turquie, c'est un joli bijou, facile à perdre, qu'il faut par cette raison soigneusement tenir sous le clef, et dont au surplus on peut trafiquer. En Espagne, la FEMME est une espèce d'ennemi dangereux, qu'il n'est pas mal d'enfermer parfois; en Moscovie, une compagne malheureuse, qu'il est bon de battre de temps en temps; en Angleterre, une égale soumise, qu'on estime et qu'on aime; en Pologne, une maîtresse qui commande; en France, la FEMME est une divinité qu'on adore (Bescherelle & Larcher, 1847, 56. or.).

19 «[...] Catalina Erauso, donostiarra, célèbre por sus andanzas varoniles y por ellas conocida con el sobrenombre de «La monja alférez», de quien tanto nos han hablado los críticos y poetas españoles» (e.g., 1922, azaroak 30).

20 Erausok idatzitako –edo diktatutako– lanaren lehen edizio modernoa Ferrerrek (1829) Parisen egindakoa da. Ondoren, Bartzelonan argitaratu zuten lan hori (J. Tauló, 1838), eta, harrezkero, beste hainbat lekutan ere bai; besteak beste, Madrilén (Tipografía Renovación, 1918, J.M. Herediaren sarrerarekin). Erraztiren hitzaldia baino bi hamarkada lehenago, Blascok (1890) ere argitaratua zuen Erausori buruzko biografia nobelatu bat, adibide bat aipatzearren.

21 Nire ustez, akats bat dago esaldi horretan, eta honela ulertu beharko genuke: «Lo que las mujeres dicen de las mujeres».

22 Landak (d.g.) atondu zuen Bescherelle eta Larcherren (1847) lanaren Espainiako edizioa. Espainiari dagokion azalpenari buruz, ohar hau egin zuen editore espainolak: «Creemos que la autora del artículo, no ha tenido en cuenta al escribir estas líneas, la proverbial galantería de los hombres de nuestro país, y las virtudes de las damas españolas» (Landa, d.g., 86. or., 1. oh.).

Emakumeek emakumeei buruz zuten iritziaren berri emateko, berriz, hitzaldiaren urtean bertan argitaratutako liburu bat izan zuen Erraztik oinarri: Marie Gasquet proventzar idazlearen *Ce que les femmes disent des femmes* (1931)²³. Emakumeei buruzko zenbait lan idatzi zituen Gasquetek, eta, Erraztik aipatutako liburuan, zehazki, XVII.-XIX. mendeak bitarteko Frantziako hogeita hamar emakumek idatzitako testu-zatiak bildu zituen, izeba zahar batek oinordetzan utzitako aleetatik²⁴. Mademoiselle de Scudery (1607 – 1701), Anne de Lanclos (1616 – 1706) eta Madame de Sévignéren (1627 – 1696) pasarteekin hasten du Gasquetek (1931) bere liburua, eta George Sand (1804 – 1876), Daniel Stern (1805 – 1876), Madame de Gasparin (1815 – 1894) eta Madame de Rieuxenekin (1854 – 1929) amaitzen. Hala ere, *Aberriko* kronikak ez digu zehazten Gasqueten liburuko zein pasarte aipatu zituen Erraztik bere hitzaldian.

Bere diskurtsoaren hurrengo atalean, Bibliako, Antzinateko, eta Aro Moderno eta Garaikideko hainbat emakume hartu zituen ahotan Erraztik, munduaren hasieratik emakumeek gizartean izandako eragina erakusteko asmoz²⁵. Ondoren, «Euzkeldun neskatillai» artikuluko sortako testuetako batean (Errazti, 1916b) aipatutako ideia bati heldu zion berriro: euskal emakumeek ikasi egin behar dutela, baina emakume- eta ama-zereginak alde batera utzi gabe eta harropuztu gabe, barregarri gera ez daitezen, Molièreren *Femmes savantes* direlakoak bezala; *Euzko-Deyako* artikulua idaztean mahai gainean edukitako testu bera –ziurrenik, Dupanloupena, gorago azaldu bezala– izan zuen, beraz, gogoan Erraztik 1931ko hitzaldia idaztean. Amaitzeko, aberria euskal emakumeen esku zegoela aldarrikatu zuen: «[...] en nuestros montes, en nuestros valles y en nuestras costas. Aquí se ha formado física y espiritualmente nuestra raza, tipo excelso de mujer vasca que aún perdura para orgullo de nuestra patria y que debemos procurar mantener incólume para la dicha y salvación de Euzkadi».

Horrenbestez, bai 1922ko hitzaldian, bai 1931koan, batik bat iragan mitiko eta idealizatu batean bilatu zituen ereduak Erraztik, eta aberriaren heroi gisa eraiki zuen

23 Marie Gasquet (1872 – 1960) –ezkondu aurretik, Marie Girard– Marius Girard proventzar poetaren alaba izan zen. Aitak harreman estua izan zuen garaiko artista eta poeta askorekin, tartean Mistralekina, eta, hark eskatuta, alabak «aitabitxi» deitzen zion Mireioren egileari. Joaquim Gasquet idazle eta arte-kritikariarekin ezkondu zen, eta zenbait lan argitaratu zituen Pariseko E. Flammarion argitaletxean. Proventzan girotutako lan batzuk idatzi zituen *Une fille de Saint François* (1922), *Tante la Capucine* (1925) eta *Une enfance provençale* (1926)–, eta, *Ce que les femmes disent des femmes* liburua idatzi baino lehenago, 1929an, Joana Arc-ekoari buruzko lan bat ere idatzi zuen *Sainte Jeanne d'Arc* (1929)–, urte horretan bertan gaztelaniara itzuli zena (Gasquet, 1929). Gasquetek idatzitako beste lan batzuek ere *Le métier de Pénélope* (1924), *Sainte Bernardette de Lourdes* (1934), *La vénérable Anne-Madeleine Rémusat* (1935)–erakusten dute emakumea izan zela haren interesgune nagusietako bat.

24 «L'idée d'enfiler comme des verroteries multicolores les confidences disparates et les pensées contradictoires égrenées, par une trentaine de femmes, dans deux siècles et demi de littérature n'est pas de moi: elle me vient [...] d'une grand'tante que j'aimais» (Gasquet, 1931, 7. or.).

25 Hain zuzen, Ester, Rut, Noemi, Dalila, Sabako erregina, Herodias, Salome, Marta, Maria, Tais, Lais, Lisistrata, Kleopatra, Lukrezia, Ingalaterrako Viktoria erregina, Santa Teresa Jesusena, Angulemakoa dukesa, «Fernán caballero» –Cecilia Böhl de Faber (1796 – 1877)–, Kristina Saboiakoa, Concepción Arenal eta Joana Arc-ekoa aipatu zituen Erraztik, *Aberriko* kronikaren arabera. García Llansó et al.-en (1899) lanean, adibidez, Erraztik aipatutako emakume batzuk –Viktoria Ingalaterrakoa, Fernán Caballero eta Concepción Arenal– aipatzen dira, besteak beste, baina ez dakit zehazki nondik atera zuen Erraztik hitzaldian aipatutako emakume horiei guztiei buruzko informazioa.

euskal emakumearen arketipoa: 1922an, eredu ideal horren femeninitasuna azpimarratu zuen, eta, 1931n, berriz, euskal emakumeak gizartean zeukan egitekoaren garrantzia. Hala, «Euzkeldun-neskatillai» artikuluko sortan zabaldutako euskal etxe-koandre(gai)aren iruditik apur bat aldendutako emakume-eredua eskaini zuen Erraztik bere hitzaldietan, baina, nolanahi ere, jeltzaletasunak eta Europako burgesiak ezarritako genero-ikuspegiaren arabera. Hitzaldietako arketipo heroikoa eratzeko, Aranaren *Libe* antzezlanetik edan zuen, batez ere, Erraztik, eta, Aran bezala, arraza gordetzeko ezinbesteko bitartekari gisa irudikatu zuen emakumea. Era berean, *Euzko-Deyako* artikuluko sorta idaztean bezalatsu, Frantzian nahiz Espainian argitaratutako beste testu batzuez –Gasquetenaz, Bescherelle eta Larcherrenaz, etab.– baliatu zen euskal emakume heroiko horren gailentasuna justifikatzeko eta azaltzeko.

3.2. Euskal olerkarien genealogia femeninoa eraikitze iturriak

Aurreratu bezala, 1950eko irail-urriko *Euzko-Gogoaren* alean argitaratu zen Erraztiren «Emakume oleskarijak» artikulua. Onaindiaren (1990, 181. or.) esanetan, Zaitegiren aldizkarian Pizkundeko euskal gizon olerkariak buruz Jemeinek idatzitakoari erantzuteko xedea zuen Erraztiren lan horrek, genero-desoreka apur bat berdintze aldera. Hortaz, gizonak eraikitako kanonak auzitan jartzen eta kontrakanon femenino bat eraikitzen saiatzen da bere artikuluko horretan Errazti, haren ondoren beste emakume batzuek egin duten baino modu xumeagoan bada ere (Retolaza, 2024, 303. or.); helburu horren erakusgarri, gizonen jarrera baztertzaila salatzen du Erraztik (1950, 14. or.) bere testuaren hasieran: «Neurtitz zarrak eta neurtitz barriak dirala-ta, gixonak diñardube; baña, jakiña, gixonak egiñak beti. Emakume oleskarijak ixan dirala ta bai-dirala ondiño be, gixonak ete-dakije? Laketu, ba, niri emakume oleskarijetzaz jarduten».

Erraztik, horrenbestez, orduko eta lehenagoko emakume olerkariak hartzen ditu jomugatzat, eta, hala, senarrak hizpide izandako garai eta genero literarioaz –Pizkundeko olerkigintzaz– ez ezik, antzinagoko euskal olerkigintzaz ere aritzen da bere lanean²⁶. Euskal Pizkundeari dagokionez, EABko Sorne Unzueta *Utarsusen Itxartu, euzko-alabea!* eta Pantzeske Astibia *Onintzeren Euzko-Gaztedija* aurkezten ditu, Erraztiren begietan «antziñekuaguak baño obiak» direnak, bai gaiak jorrazteko moduagatik, bai erabilitako hizkuntza garbiagatik. Alabaina, Pizkundeko emakume olerkarien dohainak eta balioa agerian jartzeko, Erraztik beharrezkoa du euskal olerkigintzaren bilakaeraren ikuspegi orokor bat ematea; horretan ahalegintzen da, beraz, artikuluko lehen zatian, eta, *Utarsusen* eta *Onintzeren* olerkien berri eman aurretik, euskal olerkigintzaren historiako zenbait lekukotasun aletzen ditu.

Emakume olerkariak jomuga dituen heinean, batez ere XV. mendeko emakume eresigileen testuetan jartzen du arreta Erraztik euskal olerkigintzaren bilakaerari buruzko

26 Euskaltzaindiaren *Literatura terminoen hiztegia* (2008, 608.-609. or.), *olerkari* hitzaren bi adiera jasotzen dira: zentzu zabalean, poeta lirikoa eta epikoa izendatzeko erabili izan da *olerkari* hitza; zentzu hertsia batean, gerra aurreko Pizkundeko poeta-multzoa izendatzeko. Ulertu behar dugu zentzu zabalean erabiltzen duela hitz hori Erraztik.

azalpen labur horretan. Erdi Aroko eresien pasarteetan aurretik, baina, beste hiru lekukotasunen testu-zatiak ematen ditu (15. or.), beren antzinatasunagatik –dataren gaineko zehaztasun falta gorabehera– edota jeltzaletasunaren barruan daukaten sinbolismoagatik Erraztiren zatitza bereziki esanguratsuak direnak. Lehenik, *Leloren kantua* deritzonaren pasarte bat aipatzen du –«Lelo il Lelo / Lelo Zara / Il leloa»–; alegia, Erraztiren hitzetan, «ezautzen dogun abestirik antziñekuena [...] ei» denarena²⁷. Jarraian, *Beotibarko kantua*ren testu-zati bat txertatzen du –«Milla urte igarota / ura bere bidean [...]»²⁸–, eta, azkenik, «Malato Zugatza'ren abestija» izenekoaren pasarte bat –«Odoldurik eldu giñan / Mallatu arbola onetara [...]»²⁹–.

Horiek aipatuta, XV. mendeko «emakume oleskari zintzuak» hartzen ditu hizpide (15. or.), eta haien eresien zenbait bertso aurkezten ditu. Lehenbizi, *Milia Lasturkoren eresien* lehen kopia aipatzen du³⁰:

Zer ete da andra erdiaen zauria?
Sagar errea, eta ardao gorria.
Alabaya, kontrario da Milia:
azpian lur otza, gañean arria.

Jarraian, eresia horretako bertsoei «Ortiz de Oro eta Bidaurren Sancha»k emandako erantzuna jasotzen du³¹:

Ez dauko Peru Garziak bearrik
ain gatx andia apukadua gatik.
Zeruetako mandaturia ixanik,
andrariok ala kunpli jasorik.

27 *Ibarguen-Cachopin kronikan* jasotako *Kantabroen kantua* delakoaren lehen estrofa da *Leloren kantua* deritzona. Arriolabengoaren (2008, 46. or.) esanetan, zentzurik gabeko antzinako errepika da kantu hori, ahozko tradizioetik jasotakoa eta beste kantu batzuetarako errepika bihurtu dena –Etxeparearen lanean ere irakur daiteke, besteak beste (Arriolabengoa, 2008, 51. or.)–.

28 1321. urtean gipuzkoarrek nafarren kontra erdietsitako garaipenaren berri ematen du *Beotibarko kantua*, eta orduko lekukotasun gisa aurkezten du Erraztik –zehazki, 1322. urtea aipatzen du–, nahiz eta litekeena den berriagoa izatea (Michelena, 1964, § 3.1.1). Jeltzaletasunak garrantzia handia aitortu izan dio *Beotibarko kantuari*.

29 *Malatu* (edo *Mallatu*) deritzon zuhaitzak Bizkaiko Jaurerriaren muga zehazten zuen, eta euskaldunen independentziaren sinbolotzat hartzen zuten aranazaleek. «Amandarro'ren» abestiak ere aipatzen ditu Erraztik, baina testu-zatirik eman gabe; Amandarroren gainean, ikus San Juan Manso (2025).

30 *Euzko-Gogoan* argitaratutako eresien pasarteek huts nabarmenak dituztela ikusirik, testua ulergarri egiteko ezinbestekoak diren zuzenketa batzuk egin ditut –baita puntuazioa eta letra larriak egokitu ere–, Michelena (1964) emandako testuaren argitan –baina, (orto)grafiari dagokionez, hari jarraitu gabe–. Lehen eresia honen testuan, zehazki, aldaketa hauek egin ditut (cf. Michelena, 1964, § 3.1.5): *ardiaen* > *erdiaen*; *kontrario* > *kontrario da*; *orra* > *otza*. Erraztik «Lastur'tar Milia» olerkaria aipatzen du, baina, jakina denez, *Milia Lasturkoren eresien* kasuan, eresigilea ez da Milia, ezpada Miliaren ahizpa; ahizpa horrek Miliaren senar Peru Gartzia Orokoren jarrera salatzen du, eta Miliaren senarrak Marina Arrazolako anderearekin ezkondu nahi duela azaltzen. Peru Gartzia Orokoren arreba Santxa Ortizek Miliaren ahizpari erantzuten dio, esanez nebak Miliaren heriotzan errurik ez duela. *Milia Lasturkoren eresien* esanahia zabalago azaltzen dute Mitxelenak berak eta Alvarez Uriak (2024, 50.-51. or.), besteak beste.

31 Santxa Ortizen erantzunaren kopia honetan, aldaketa hauek egin ditut, Michelena (1964, § 3.1.5) emandako testua aintzat hartuta: *ezdauko* > *ez dauko*; *Peru-Garzi* > *Peru Garziak bearrik*; *gaitik* > *gatik*.

Ondoren, «Otxoa eta Ozaeta'tar Sancha»ren pasarte hau azaltzen du³²:

Oñetako lurrau jabilt ikara,
Lau aragiok bere an berala,
Martin Bañez Ibarreta'n il dala.
Artuko dot esku batean gezia,
bestean suzi iraxegia:
erreko dot Aramayo guztia.

Eta, azkenik, «Butron'dar Jone»ren hauxe³³:

Berba orren berba gazia,
berba orri nai ez dakiola balia.
Dardoak egiñarren bere aldia,
Olaso da ene egoteko aulkia.

Bistan denez, egoera makurrei aurre egiten saiatzen diren emakume indartsu eta adoretuak dira eresi horien egileak, eta, ematen dien arretagatik, Erdi Aroko euskal emakume horiek balioesteko nahia erakusten du Erraztik. Olerkigintzarako gaitasunari dagokionez, hala ere, Erdi Aroko eresigileak ez ditu hartzen Pizkundeko olerkariak bezain trebetzat, lehenago aipatutako arrazoiengatik; trebetasun falta horretan, emakume eresigileek bat egiten dute –Erraztiren ustez– orduko eta ondorengo bertsolariekin, eta, XV.-XVI. mendeetako herri-olerkarien uzta eskasaren erakusgarri, M. Chanfarronen heriotzaren berri ematen duten bertsoak aipatzen ditu Erraztik (15. or.) –«Munsiur Chanfarron / jaun handia [...]»³⁴–.

Lekukotasun horien guztien berri emanda, Pizkundeko «emakume oleskari onak» goraipatzen ditu Erraztik, eta, *Itxartu*, *euzko-alabea!* olerkiaren sei ahapaldi eta *Euzko-Gaztedija* izenekoaren testu osoa eman ondoren, zera baieztatzen du (16. or.):

32 Martin Bañez Artazubiagakoren heriotzako eresia delakoaren pasarte honetan, aldaketa hauek egin ditut, Michelenak (1964, § 3.1.9) emandako testuaren argitan: *Oñateko larra jabiltikora* > *Oñetako lurrau jabilt ikara*; *aragurek* > *aragiok*; *berean* > *bere an*. 1464. urteko gertakari hau du abiapuntu eresi honek –Erraztik 1448. urtea aipatu arren; cf. Guerra (1924, 34. or.)–: Santxa Otsoaren senar Martin Bañez ganboatarraren erailketa, Aramaioko jaun oinaztarraren aginduz. Eresi honen gaineko irakurketan sakontzeko, ikus, esaterako, Alvarez Uri (2024, 49. or.).

33 Michelenak (1964, § 3.1.8) emandako testua kontuan hartuta, honela aldatu dut *Olasoko kantua* deritzon eresi honen testua: *grazia* > *gazia*; *naz* > *nai*; *Olasso* > *Olaso*; *euk* > *ene*. Aramaioko jaun Gomez Gonzalez Butroeko eta Muxikako oinaztarraren alaba Joanak amari kantatutako eresiaten hasierako bertsoak dira hauek. 1450. urte inguruan, Aramaioko jaunak alaba Bergarako Olasoko jaun Martin Ruiz ganboatarrarekin ezkontzeko hitzarmena egin zuen, baina, ganboatarrekin Joanaren aita hil zuten, eta ama alabaren ezkontza geldiarazten saiatu zen. Testuinguru horretan, Joanak bertso hauek kantatu zizkion amari, eta, nahi bezala, senargaiarekin ezkontzea lortu zuen. Eresiaten esanahiaren gainean, ikus, kasurako, Alvarez Uri (2024, 52.-53. or.).

34 Michelenak (1964, § 3.1.16) jasotako lekukotasunaren arabera, Joan Perez Azkue hondarribiarrak hil zuen M. Chanfarron izeneko jaun frantsesa, 1544. urtean. Guerrak (1924, 91. or.) eta Cidek (1994, 180. or.), berriaz, 1522an kokatzen dituzte M. Chanfarronen *kantua* deritzonaren bertsoak; haien esanetan, Frantziako Frantzisko I.a erregeak Hondarribiko gobernadore izendatu zuen M. Chanfarron soldadua, eta, hura Irun erretzera zihoala, Joan Perez Azkuek eta haren kideek hil zuten.

«euzkel-olerki onek, antziñakuen onduan jarrita, bai-dauke aldia». Zalantzarik gabe, pasioz betetako testua da Utarsusena (Alvarez Uribe, 2024, 270. or.)³⁵:

Ortzia garbi ta oztin
dakusku, sorkaldian
argi gorri biguntxuba
zabalduten asi da.
Itxartu, euzko-alabea;
jagi, ba, emakumia!

Aurrekoaren aldean, samurragoa, agian, Onintzerena (Kortazar, 1995, 66. or.)³⁶:

Euzko-Gaztedija...
lora dun landare maitagarriya
gorri ta goriya
ederra de benetan ire aziya!

Nolanahi ere, biek ala biek erakusten dute jeltzaletasunaren aldeko mezu argia, eta, aberriaren defentsak ez ezik, bestelako gaiek (gazteen indarra, bizitzeko gogoia...) eta adierazpide modernistek (adjektibizazio zaindua, barne-ikuspegia, etab.) modernitate-kutsua ematen diete bi olerkarien testuei (Kortazar, 1995, 63.-73. or.). Era berean, XX. mendeko jeltzaletasunak zabaldu nahi zuen hizkuntza-molde garbiarekin bat datorren hizkuntza-eredu bat ere eskaintzen dute Utarsusen eta Onintzeren testuek –bizkaierarena lehenak, gipuzkerarena bigarrenak–, eta, alde horretatik, Pizkundeko bi emakumeen olerki horiek baino «askozaz mordolozkuaguak eta itxusijaguak» diren olerki garaikideak ere baditugula gogorarazten du Erraztik, «Markesaren alaba»rena eta «Kantabriako deskalabrua»rena adibidez³⁷. Hori esanda –eta Utarsusen eta Onintzeren olerki garbi eta sakonen eredugarritasunaren erakusgarri–, emakumeei zuzendutako mezu argi honekin ixten du Erraztik bere testua (16. or.): «Emakume euzkotarrak: garbitu, landu, sakondu ta ederragotu daigun gure Euzkera laztana».

Erraztiren artikulu hori argitaratu baino ia mende laurden lehenago –1927. urtean–, Nikolas Ormaetxea *Orixek Euskal-Literaturaren atze edo edesti laburra* izeneko lana aurkeztu zuen *Euskal-Esnalea* aldizkariaren sariketara; zehazki, sariketa horren

35 *Euzko-Gogoan* argitaratutako testuaren grafiarekin ematen dut Utarsusen olerkiaren lehenengo ahapaldia, baina, *Euzkerean* 3(33) [1931-09-15], 710) argitaratutako testua kontuan hartuta, puntuazioa egokitu dut eta beste aldaketa hauek ere egin ditut: *biguntsuba* > *biguntxuba*, *alaba* > *alabea*; *jagi* > *jagi, ba*. Pasioz betetako olerkia izanagatik, «xamurtasunaren olerkigintza»tzat hartzen du Kortazarrek (1995, 69. or.) Utarsusen poesia.

36 Onintzeren olerkiaren hasierako bertsoak ere, *Euzko-Gogoan* argitaratu bezala ematen ditut, baina, *Euzkerean* 2(22) [1930-09-15], 455) argitaratutako testuari jarraikiz, *zure* > *ire* aldaketa egin dut.

37 Erraztiren baieztapen hori bete-betean dago lotuta Jemeinek (1950b) 1950eko maiatz-ekaineko *Euzko-Gogoan* argitaratutako artikuluaren Pizkundeko olerkariaren garbitasunari eta sakontasunari buruz esandakoa-rekin. 1950. urtea baino aski lehenagotik, garbizaleen artean ohikoa zen bertsolarien hizkera mordoiloa arbuiatzea, eta 50eko hamarkadan bizi-bizirik jarraitzen zuen garbizaleen eta mordoilozaleen arteko eztabaidak, orduko hainbat testuk erakusten duten bezala; horren berri ematen du, kasurako, Altonagak (2025, 134., 145.-146. eta 163.-165. or.).

«Euskal elertiarren edestiak» izeneko sailera. Iztuetak (2002, 127.-128. or.) azaltzen duenez, Orixeren lana izan zen sail horretara aurkeztutako lan bakarra; Orixe, beraz, ez zen inorekin lehiatu behar izan saria lortzeko, eta urte horretako *Euskal-Esnalearen* 283.-288. zenbakietan argitaratu zuten hark atondutako testua. Lan horren hasieran, bere jardunbidearen berri ematen du orexarrak: «Euskeraren literatura, dentxoa, iru atal eginen dizut [...] Gizonez-gizon morkatuko dizut, jaunetik edo buruenik izan direnetara xumeagoaz eratxikiz» (Iztueta, 2002, 19. or.). «Gizonez-gizon» sailkatutako literaturaren historia horretan, bada, emakumeen testu bakar bati egiten dio leku Orixe: *Milia Lasturkoren eresiarri*. Erraztik aipatutako testuei dagokienez, beste biri buruzko jakingarriak ere ematen ditu; hain zuzen, *Leloren kantuari* eta Beotibarkoari buruzkoak (Iztueta, 2002, 27.-29. or.).

Orexarraren lan hori zen 1950. urtea baino lehen euskal literaturaren historiari buruz idatzitako erreferentziazko lan bakanetako bat, eta litekeena da Erraztik inoiz Orixe-ren *edestia* irakurri izana; nolana ere, argi dago Erraztik ezin izan zituela lan horretatik atera «Emakume oleskarijak» artikuluan jasotako olerki guztiak. Nondik atera zituen horiek, orduan? Bada, gehientsuenak, beharbada, Orixe berak bere *edestian* aipatutako Juan Carlos Guerraren *Los cantares antiguos del euskera* (1924) lanetik –zeina, liburu gisa kaleratu baino lehen, *Euskalerriaren alde* agerkarian atalka argitaratu baitzen, 1921.-1923. urteak bitartean–; izan ere, Erraztik aipatutako pasarte eta izen ia guztiak daude bertan jasota, *Leloren kantutik* hasita, Monsieur Chanfarron zelakoari buruzko bertsoetaraino³⁸. Jakina da Jemein-Errazti senar-emazteek euskal gaiei lotutako liburutegi aparta zeukatela (San Juan Manso, 2025), eta, hortaz, ez da harritzekoa Guerraren lanaren ale –edo kopia– bat ere izatea euren liburutegi horretan.

XX. mendeko olerkiak, jakina, Erraztik ez zituen Guerraren lanetik atera. Badakigu Erraztiren senarrak aldizkari eta egunkarietatik olerkiak biltzeko ohitura zuela³⁹ eta jemein-erraztitarren bizilekua aldizkariz eta egunkariz beteta zegoela (Unzueta, 1980); litekeena da, beraz, Erraztik aldizkarietatik –edo aldizkarietatik hustutako bildumetatik– atera izana bere artikuluan aipatutako olerki eta bertso garaikideak⁴⁰: Onintze eta Utarsusenak Euzkeltzale-Bazkunaren *Euzkerea* aldizkarian argitaratu ziren, 1930. eta 1931. urteetako iraileko aleetan –*Euzkerea*, 2(22) [1930-09-15], 455; *Euzkerea*,

38 Erraztik aipatutako testu hauek aipatzen ditu Guerrak (1924): *Leloren kantua* (87.-88., 94.-102. eta 115. or.), *Beotibarko kantua* (62.-64. or.), *Milia Lasturkoren eresia* –Santxa Ortizen erantzuna barne– (39.-40. or.), Santxa Otsoarena (36. or.), Butroeko eta Muxikako jaunaren alaba Joanarena (23. or.) eta M. Chanfarronen bertsoak (92. or.). Kontuan hartzekoa da, hala ere, Erraztik emandako testua ez datorrela beti bat Guerrak emandakoarekin. Orixe ere aipatzen du Juan Carlos Guerra (*Euskal-Esnalea*, 17(283) [1927-07], 152. or.; Iztueta, 2002, 25. or.); Iztuetaren edizioak «J. E. Guerra» dakarren arren, «J. C. Guerra» ageri da *Euskal-Esnalean* argitaratutako testuan.

39 Olerkiak ez ezik, aldizkarietatik bestelako testuak ere biltzeko ohitura zuen Erraztiren senarrak; horren erakusgarri da, kasurako, Sabino Arana Fundazioaren Abertzaletasunaren Agiritegiko «PNV-160-30» karpeta, ustez Jemeinek egindako dokumentu bat gordetzen duena, *Jagi-Jagi* aldizkariaren 111.-112. zenbakietatik hustutako testuekin.

40 Aurretik erakutsi bezala, hainbat aldaketa daude jatorrizko aldizkarietan argitaratutako testuen eta Erraztiren artikuluan emandakoen artean. Hori dela eta, esango nuke jatorrizko aldizkarietatik egindako kopietatik aipatu zituela Erraztik olerki guztiak edo gehienak.

3(33) [1931-09-15], 710⁴¹–; «Markesaren alaba»rena eta «Kantabriako deskalabrua»rena, berriz, 1931ko *Bertsolariya* astekariko azaroaren 8ko eta 15eko aleetan, hurrenez hurren⁴². «Malato Zugatza'ren» abestia, ordea, Aranaren (1892, 96. or.) *Bizkaya por su independencia* (1892) liburutik aterako zuen Erraztik, Arrigorriagako guduari buruzko ataletik, bertan aipatzen baita «Mallatu areitz»aren abestia⁴³; kantu hori oso gogoko omen zuen Erraztik, 1952ko martxoan idatzitako artikuluan batean ere aipatzen baitu (Errazti, 1952).

Retolazak (2012, 114. or.) esaten duen bezala, EABko kideek «ez zuten genealogia literariorik eratu, ezta femeninorik (edo feministarik) ere, ez baitzituzten emakume idazleen ekarpenak kontuan hartu, baizik eta gizonezkoen literatura tradizioaren jarraitzaile izan ziren». Bada, oro har hori horrela izanik ere, gizonezkoek isilarazitako emakume olerkarien lana aldarrikatzeko eta emakume olerkarien genealogia moduko bat aurkezteko nahia erakutsi zuen Erraztik «Emakume oleskarijak» artikuluan, Bordaren (1984) antologia baino ia hogeita hamabost urte lehenago (San Juan Manso, 2025).

4. ONDORIOAK

Aurreko ataletan esandakotik, ondorio nagusi hauek atera ditzakegu:

1. XX. mendearen hasierako prentsa abertzalean idazteko adorea izan zuen emakume aitzindarietako bat izan zen Karmele Errazti. Haren artikuluetan zabaldu-tako ideiak Aranaren JEL leloan ardaztuta daude, eta, alde horretatik, bat egi-ten dute, oro har, beste euskal emakume batzuek prentsa abertzalean garatutako ideiekin.
2. Emakumearekin lotutako iruditeriaren sorkuntzari eta emakumearen balioespenari begira daukaten garrantziagatik, bi mugarri ezarri ditut Erraztiren artikulugintzan: batetik, «Euzkeldun neskatillai» izeneko testu-sorta (*Euzko-Deya*, 1916 – 1918); bestetik, «Emakume oleskarijak» artikulua (*Euzko-Gogoa*, 1950). *Euzko-Deyan*

41 Etxebarriak (1997, 53.-55. or.) Utarsusen olerkia berrargitaratu zuen, Sorne Unzueta-aren lan guztiak biltzen dituen liburuan.

42 Txirritaren *Fueroak kendu zituanari* izeneko bertso jarrien bi bertso aipatu zituen Erraztik: «Kantabria-ko deskalabruak / dirade lastimosuak» (*Bertsolariya*, 1(9) [1931-11-15], 56. or.); «Markes baten alaba / interesatuba / mariñeruekin / enamoratua» bertsoak, berriz, Severo Iturrino mutrikuarraren *Marke-saren alaba Iturrinok jarriak* izeneko sortaren lau bertso dira (*Bertsolariya*, 1(8) [1931-11-08], 48. or.). Iturrinoren bertsoak *Berso berriak amoriyo finarenak* izenburupean ere argitaratu ziren hainbatetan; Pozo-ren moldizkiriari, Donostian, argitaratutako alea jaso zuen aita Donostiak (1994, 3. lib., 1478. or.) bere kantu-bildumarako. Txirritaren bertsoak, berriz, Antonio Zavalak ere (1971, 46.-56. or.) bildu zituen, besteak beste.

43 Bi urte lehenago *La Abeja* aldizkarian argitaratutako lau artikulua biltzen ditu Aranaren liburuak; artikulua horiek bizkaitarrek espainolei irabazitako lau batailaren berri ematen dute –Arrigorriagakoa (888), Gorder-xolakoa (XIV. mendea), Otxandiokoa (1355) eta Mungiakoa (1471)–. Arana gudu horietan oinarritzen zen euskaldunak jatorriz independenteak zirela aldarrikatzeko (Ugalde, 1993, 46. or.).

argitaratutako testu-sortan, etxekoandre(gai) euskaldun jeltzaleentzat pentsatutako hainbat aholku eskaintzen ditu Erraztik; *Euzko-Gogoako* artikuluan, berriz, Pizkundeko bi euskal olerkariaren –Utarsusen eta Onintzeren– testuei balioa ematen saiatzen da, euskal olerkarien nolabaiteko genealogia femeninoa eraikita.

3. «Euzkeldun neskatillai» artikuluko sorta idazteko Erraztik baliatutako iturrien azterketak zera erakusten du: jeltzaleek idatzitako eta zabaldutako testuetatik ez ezik, ondoko nazio-estatuetaiko –Espainiako eta Frantziako– burgesiak sortutako eta hedatutako testuetatik ere edan zuela Erraztik emakume euskaldunentzako jokabide-arauak idazteko orduan, ondoko nazio-estatu horietako ideologia burgesa puntu askotan baitzeturren bat ideologia jeltzalearekin. Orobat, Erraztik 1922an eta 1931n emandako bi hitzaldiren iturrien azterketak erakusten du Frantzian nahiz Espainian argitaratutako zenbait testu baliatu zituela Erraztik, Aranek eraikitako emakume abertzalearen arketipoarekin bat zetorren emakume-eredua zabaltzeko.
4. «Emakume oleskarijak» artikuluaen iturrien azterketak, berriz, erakusten du Erraztik Euskal Herrian ezagunak ziren liburu eta aldizkarietatik berreskuratu zituela gizon jeltzaleek isilarazitako zenbait testu edo testu-zati, hala Erdi Aroko emakume eresigileenak nola Pizkundeko emakume olerkariak.
5. Aipatutako artikuluko guztietan, euskaraz eta euskaldunentzat aritu zen Erraztik, eta, testu gehienak idazteko, bere garaiko emakume abertzale askoren pareko helburuak eta jarduteko moduak izan zituen. Hala, beste emakume abertzale garaikide batzuen antzera, ondoko nazio-estatuetaiko testuetara jo zuen Erraztik, nahiz eta berezko iturri-errepertorioa baliatu zuen. Bestalde, emakumeek idatzitako testuak aldarrikatzeko eta erdigunean jartzeko nahia ere erakutsi zuen Erraztik, eta, zenbait emakume olerkari ahanzturatik berreskuratzeko ahaleginean, berritzailea izatea lortu zuen.

5. ERREFERENTZIAK

- Alq, Mme L. d'. (d.g.). *Essais pour l'éducation du sens moral. La science de la vie. La vie intime*. Bureau des Causeries Familiales.
- Alq, Mme d'. (1881). *La sociedad y la familia* (itzul. M. Aranda y Sanjuán). Administración Nueva de San Francisco 11-13. (Jatorrizko obraren argitaratze-data: ezezaguna)
- Altonaga, K. (2025). *Patrizioak eta plebeioak: gure prosaren emergentzia*. Pamiela.
- Alvarez Uribe, A. (2024). *Zuzi iraxegia: euskal emakume idazleak eta literatura klasi-koa*. Testu Zaharrak.
- Arana Goiri, S. (1892). *Bizkaya por su independencia*. Sebastián de Amorrortu.
- Arriolabengoa, J. (2008). *Euskara Ibarguen-Cachopin kronikan: testu zaharren edizio-erako kontribuzioa*. Euskaltzaindia; BBK Fundazioa.
- Astete, G. (1911). *Catecismo de la doctrina cristiana*. Hijos de Santiago Rodríguez.
- Atxaga, M. (1997). *Emakume idazleak*. Eusko Jaurlaritza.

- Barandiaran Contreras, M. (2024). *Publicaciones periódicas del Partido Nacionalista Vasco (1939 – 1975)*. Sabino Arana Fundazioa.
- Becerro de Bengoa, R. (1885). *Romancero alabés*. Viuda e Hijos de Iturbe.
- Bescherelle, M. & Larcher, L.-J. (1847). *La femme jugée par les grands écrivains des deux sexes, ou la femme devant Dieu, devant la nature, devant la loi et devant la société*. Simon.
- Blasco, E. (1890). *Del claustro al campamento o La Monja Alférez*. Martínez y compañía.
- Borda, I. (1984). *Emakumeak idazle: antologia eta ohar zenbait*. Txertoa.
- Camino, I. & Guezala, L. (1991). *Juventud y nacionalismo vasco: Bilbao (1901 – 1937)*. Sabino Arana Fundazioa.
- Cid, J.A. (1994). El *Cantar de Mosiur Chanfarron*; circunstancia y sentido (Comentarios a una página de Garibay). *ASJU*, 28(3), 179-197.
- Donostia, A. (1994). *Cancionero Vasco* (1.-4. lib.). In J. de Riezu (arg.), J.M. Beltran & C. Zudaire (lagle.), *Obras completas* (6.-9. lib.). Eusko Ikaskuntza.
- Dupanloup, F. (1900). *La femme studieuse*. Ch. Douniol-Téqui. (Lehen edizioa 1869an argitaratua)
- E.g. (1906, abuztuak 11). El nacionalismo y la mujer vasca. *Aberri*.
- E.g. (1922, azaroak 30). Juventud Vasca de Bilbao al Maestro en el XIX aniversario de su muerte. *Aberri*.
- E.g. (1931, urriak 16). Emakume Abertzale Batza. Inauguración del ciclo de conferencias. *Euzkadi*.
- Eleizalde, L. (1918). *Landibar: cuadros novelescos del País Vasco*. Fuertes y Marquínez.
- [Errazti, K.] Etxakin. (1916a). Euzkeldun neskatiillai. *Euzko-Deya*, 16 [1916-10-01], 8.
- [Errazti, K.] Etxakin. (1916b). Euzkeldun neskatiillai. Emakumien jakin-biarrak. *Euzko-Deya*, 17 [1916-11-01], 6.
- [Errazti, K.] Etxakin. (1916c). Euzkeldun neskatiillai. Sendi-jayak. *Euzko-Deya*, 20 [1916-12-16], 8-9.
- [Errazti, K.] Etxakin. (1917a). Euzkeldun neskatiillai. *Euzko-Deya*, 24 [1917-02-16], 4.
- [Errazti, K.] Etxakin. (1917b). Euzkeldun neskatiillai. Aizkidetasuna. *Euzko-Deya*, 35 [1917-08-01], 7.
- [Errazti, K.] Etxakin. (1917c). Euzkeldun neskatiillai. Atsegin txikijak. *Euzko-Deya*, 28 [1917-04-16], 4.
- [Errazti, K.] Etxakin. (1917d). Euzkeldun-neskatiillai. Ekandun (birtute) txikijak. *Euzko-Deya*, 22 [1917-01-16], 4.
- [Errazti, K.] Etxakin. (1917e). Euzkeldun neskatiillai. Etxe-ardurea. *Euzko-Deya*, 36 [1917-09-01], 6.
- [Errazti, K.] Etxakin. (1917f). Euzkeldun neskatiillai. Etxekandera onaren ereduba. *Euzko-Deya*, 21 [1917-01-01], 5-6.
- [Errazti, K.] Etxakin. (1917g). Euzkeldun neskatiillai. Neskatiil-eredubak. *Euzko-Deya*, 23 [1917-02-01], 3.
- [Errazti, K.] Etxakin. (1917h). Euzkeldun neskatiillai. Neskatiil on-onaren ereduba. *Euzko-Deya*, 25 [1917-03-01], 4.
- [Errazti, K.] Etxakin. (1917i). Euzkeldun neskatiillai. Neskatiillak guraso-etxian. *Euzko-Deya*, 34 [1917-07-16], 3.
- [Errazti, K.] Etxakin. (1918). Euzkeldun neskatiillai. Sendi zoruntsubak. *Euzko-Deya*, 54 [1918-07-01], 2.

- [Errazti, K.] Euzko-Emakume-Abertzale-Batza'ko Etxakin. (1950). Emakume oleskarijak. *Euzko-Gogoa*, 1(9-10), 14-16.
- [Errazti, K.] Emakume Batek. (1952). Zugatz gomutagarriak. *Alderdi*, 60, 11.
- Etxebarria, I. (arg.). (1997). Sorne Unzueta *Utarsus: idazlan guztiak*. Labayru; Bilboko Udala.
- Etxebarria, I. (2000). Escritoras vascas en el primer tercio del s. XX. In I.M. Zavala (koord.), *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)* (6. lib.) (385.-398. or.). Anthropos.
- Euskaltzaindia. (2008). *Literatura terminoen hiztegia*. Euskaltzaindia.
- Fénelon. (1909). *De l'éducation des filles. Texte collationné sur l'édition de 1687 avec une introduction et des notes pédagogiques et explicatives à l'usage des institutrices et des instituteurs par Charles Defodon*. Hachette. (Lehen edizioa 1881ean argitaratua)
- [Fénelon]. (1997). *Telemake: Ulizeren semearen gertakuntzak* (itzul. J.P. Duvoisin). Kruzeta, E. (arg.). Euskal Editoreen Elkarte. (Jatorrizko obra 1699an argitaratua)
- Fernández Fernández, I. (2012). Género, educación activa, lengua y nación en el País Vasco: Julene Azpeitia (1888 – 1980), exponente de una educación vasca en ciernes. *Historia de la Educación*, 31, 275-297.
- Ferrer, J.M. (arg.). (1829). *Historia de la monja alférez, Doña Catalina de Erauso, escrita por ella misma e ilustrada con notas y documentos por D. Joaquín María de Ferrer*. J. Didot.
- García Llansó, A., Pomés, R., Serrano, E. & Opisso, A. (1899). *Historia de la mujer contemporánea*. Antonio J. Bastinos.
- Gasquet, M. (1929). *Santa Juana de Arco* (itzul. B. Bureba). Ediciones literarias. (Jatorrizko obra 1929an argitaratua)
- Gasquet, M. (1931). *Ce que les femmes disent des femmes*. Flammarion.
- Goikoetxea Agirre, N. (2022). *Tene Mujika emakumea. Pizkundetik ahanzturara: XXI. mendetik ateratako postargazkiak*. Eusko Jaurlaritza.
- Granja Pascual, J.J. (2000a). Koldo Eleizalde, kazetari. In I. Ariznabarreta, P. Orcasitas, G. Arrien, J. J. Granja & E. Amézaga (arg.), *Koldo Eleizalde* (163.-182. or.). Eusko Ikaskuntza.
- Granja Pascual, J.J. (2000b). Koldo Eleizalderen literatur obra eta Eusko Ikaskuntzarekiko bere harremana. In I. Ariznabarreta, P. Orcasitas, G. Arrien, J.J. Granja & E. Amézaga (arg.), *Koldo Eleizalde* (183.-237. or.). Eusko Ikaskuntza.
- Guerra, J.C. (1924). *Los cantares antiguos del euskera*. Martín y Mena.
- Iztueta, P. (arg.). (2002). Orixe: *euskal literaturaren historia laburra*. Utriusque Vasconiae.
- Jemein, C. (1935). *Biografía de Arana-Goiri'tar Sabin e historia gráfica del nacionalismo vasco*. Editorial Vasca.
- Jemein, K. (1950a). Euzkel-Pizkundia. *Euzko-Gogoa*, 1(5/6), 6-7.
- Jemein, K. (1950b). Euzkel-Pizkundiaren olerkaririk onenak. *Euzko-Gogoa*, 1(5/6), 1-5.
- Jemein, K. (1950c). Euzkel-Pizkundiaren olerkaririk onenak. *Euzko-Gogoa*, 1(9/10), 1-2.
- Jiménez de Aberásturi, J.C. (1999). *De la derrota a la esperanza: políticas vascas durante la segunda guerra mundial (1937 – 1947)*. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea.

- Kortazar, J. (1995). *Euzkerea eta Yakintza aldizkarietako olerkigintza*. Labayru Ikastegia; Zornotzako Udala.
- Landa, J. (arg.). (d.g.). *La mujer juzgada por los grandes escritores de ambos sexos, o la mujer ante Dios, ante la naturaleza, ante la ley y ante la sociedad. Edición española, refundida y considerablemente aumentada sobre la última edición francesa*. Espasa hermanas. (Jatorrizko obra 1847an argitaratua)
- Larrañaga, P. (1978). *Emakume Abertzale Batza: la mujer en el nacionalismo vasco* (1.-3. lib.). Auñamendi.
- Méndez, P. (2010). Escritores franceses en *El Semanario Murciano*: referencias, comentarios y traducciones. In M. Giné & S. Hibbs (arg.), *Traducción y cultura. La literatura traducida en la prensa hispánica (1868-98)* (169.-183. or.). Peter Lang.
- Michelena, L. (1964). *Textos arcaicos vascos*. Minotauro [= Michelena, L. (2011). J.A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.), *Obras Completas* (12. lib., 1.-171. or.). Gipuzkoako Foru Aldundia; UPV/EHU].
- Onaindia, A. (1990). *Bizkaiko olerkariak*. Autoedizioa.
- Perez Urraza, K., Bilbao Bilbao, B. & Ezkurdia Arteaga, G. (2022). *Emakumeak aberria eginez*. Sabino Arana Fundazioa.
- Rekalde, I. (2012). Emakume Abertzale Batza: bere ibilbidea aztergai. In B. Bilbao Bilbao, G. Ezkurdia Arteaga, K. Perez Urraza & J. Chueca Intxusta (arg.), *Emakumeak, hitza eta bizitza* (21.-42. or.). UPV/EHU.
- Retolaza, I. (2012). Emakume Abertzale Batza eta emakume idazleak. In B. Bilbao Bilbao, G. Ezkurdia Arteaga, K. Perez Urraza & J. Chueca Intxusta (arg.), *Emakumeak, hitza eta bizitza* (102.-119. or.). UPV/EHU.
- Retolaza, I. (2024). Hitzostea: katebegi literario klasikoen arrasto feministen peskizan. In A. Alvarez Uria, *Zuzi iraxegia. Euskal emakume idazleak eta literatura klasikoa* (297.-305. or.). Testu Zaharrak.
- San Juan Manso, E. (2025). Karmele Erraztiren testuak: corpus osatua eta azalpen laburra. *ASJU*, 59(2). <https://doi.org/10.1387/asju.27563>
- Solana, E. (1915). *Vida y fortuna o arte de bien vivir*. El Magisterio Español.
- Ugalde Solano, M. (1993). *Mujeres y nacionalismo vasco: génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza (1906 – 1936)*. UPV/EHU.
- Unzueta, S. (1980). Keperin eta Karmele. *Zer. Bizkaitarrei Bizkaieraz*, 30, 15.
- Urkiza, A. (2012). Emakumeak adimenean. In B. Bilbao Bilbao, G. Ezkurdia Arteaga, K. Perez Urraza & J. Chueca Intxusta (arg.), *Emakumeak, hitza eta bizitza* (79.-101. or.). UPV/EHU.
- White, L. (2000). Escritoras vascas del s. XX: aproximación histórica. In I.M. Zavala (koord.), *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)* (6. lib.) (265.-283. or.). Anthropos.
- Zavala, A. (1971). *Txirritaren bertsoak* (1. lib.). Auspoa.